

Jakin176

urtarrila-otsaila
2010



*Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskararen
Normalkuntzako Zuzendaritza Nagusiaren laguntza jaso du*

.....



KULTURA SAILA

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



ZENBAKI HONETAN

7

LIBURUAK

11 Euskal liburugintza 2008
JOAN MARI TORREALDAI

GAIAK

49 Europar Batasunaren aukera euskal
gatazkan: trantsizio formulen bila
KOLDO GOROSTIAGA
ELENA BELOKI

EGUNEN GURPILEAN

77 HAIZEA BARCENILLA
INAKI IRAZABALBEITIA
GOIZALDE LANDABASO
LIONEL JOLY
JOSU LARRINAGA

© **Jakin**

JAKINeko idazlanez inon baliatzerakoan
aipa bedi, mesedez, iturria

Jakin

aldizkari irekia da eta ez dator nahitaez
idazleen iritziekin bat

ZUZENDARIA

Joan Mari Torrealdai

ERREDAKZIO-ARDURADUNA

Xabier Eizagirre

KONTSEILU EDITORIALA

Paulo Agirrebaltzategi, Joxe Azurmendi, Joseba Intxausti

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Tolosa Hiribidea, 103-1.C / 20018 Donostia
Tel. 943 21 80 92 / Fax 943 21 82 07
jakin@jakingunea.com
www.jakingunea.com

2010eko PREZIOAK

BARRUAN	HARPIDEDUNA	EZ HARPIDEDUNA
Harpidetza	55 €	—
Ale arrunta	9,20 €	12 €
EUROPAN		
Harpidetza	70 €	—
Ale arrunta	11,70 €	15,50 €
EUROPATIK KANPO		
Harpidetza	85 €	—
Ale arrunta	15 €	18 €

Jabegoa: Jakinkizunak, S.L. Donostia. Lege gordailua: S.S. 25/1977. ISSN: O211/495X
Inprimaketa: Leitzaran Grafikak, S.L., Gudarien Etorbidea, 8. Andoain (Gipuzkoa)

SUMMARY



BASQUE BIBLIOGRAPHY 2008

Joan Mari Torrealdai, the editor of *Jakin*, publishes appraisal of the development of bibliographical publication in the Basque language during 2008. In this year, 2,483 books were published in the Basque language, 348 more than in 2007. Most of these publications are school books (32%), followed by children's and young people's literature (26%), books on human and social sciences (18%) and literature for adults (12%). Torrealdai has been cataloguing Basque bibliographical publication since 1976. **JOAN MARI TORREALDAI**

THE EUROPEAN UNION OPTION IN THE BASQUE CONFLICT: IN SEARCH OF TRANSITION FORMULAS


Koldo Gorostiaga, who holds a PhD in Law and is an ex Euro MP, and Elena Beloki, a graduate in Political Science, follow the path taken by two previous articles in which the territorial and national conflict maintained between the Basque Country and Spain and France was analyzed together with the different options available within the scope of the European Union to help solve this conflict. In this third article, the authors provide a critical reflection on the possibilities offered by the latest instruments of EU regional policy to help solve the Basque territorial conflict.

KOLDO GOROSTIAGA / ELENA BELOKI

NEWS TODAY

This section gathers together cultural information focusing on the present from various areas and perspectives. Current affairs in the field of art, technoscience, literature, socio-linguistics and globalization will be analyzed this year. This section draws on various specialists: Haizea Barceñilla, Inaki Irazabalbeitia, Goizalde Landabaso, Lionel Joly, and Josu Larrinaga. **VARIOUS AUTHORS**

ZENBAKI HONETAN



Eskuetan duzun hau bigarren aldiko 176. zenbakia da eta 2010. urteko lehenengoa.

Zenbaki honetako edukien artean *Liburuak* saila dugu lehenik. Bertan, Joan Mari Torrealdai *Jakineko* zuzendariak, aurreko urteetan egindakoaren ildo beretik, 2007. urtean euskaraz argitaratutako liburuen azterketa aurkezten digu. Izan ere, Torrealdai urtero egiten duen lana ez da mugatzen liburuen zerrenda hutsa osatzera (www.jakingunea.com webgunean dago 2008ko liburuen zerrenda hori). Ohi duenez, oraingo honetan ere euskal liburuen urteko ekoizpenaren azterketa eta balorazioa osatu du.

2008ko euskal liburugintzaren azterketa honetan ere, beraz, hainbat datu eta zifrekin batera, analisia eta balorazioa datoz. Honako alderdi hauek landu ditu egileak: lehenik, liburu produkzioaren zifren eta iturrien fidagarritasunaren auzia; bigarrenik, argitalgintzari dagokionez, liburu ekoizleen izaera eta aniztasuna, eta argitaletxe emankorrenen aipamena; hirugarrenik, argitalpenaren zenbakien inguruan, argitaratutako tituluaren zifrak, nobedadeak eta berrargitalpenak, jatorrizko eta itzulitako liburuak; eta, azkenik, gai multzoen sailkapenari buruzko datuak eta azterketa. Kopuru nagusiak aipatzearen, 2008an 2.483 liburu argitaratu ziren, 2007an baino 348 gehiago. Urtero legez, liburu gehienak hezkuntza eta irakas-kuntza arlokoak izan ziren: 872 (produktio osoaren %35); ondoren, haur eta gazte literaturako liburuak (645, %26), giza eta gizarte zientziei buruzkoak (447, %18) eta helduen literaturakoak (302, %12).

Gaiak saila dator ondoren, eta bertan Koldo Gorostiaga eta Elena Belokiren artikulu bat. Iaz aldizkari honetan bertan agertutako bi artikuluren ildoari jarraitzen diote egileek (Julen Zabalo eta Jean Pierre Massias: «Euskal Herriko lurralde gatazka luzea. Europako aukera», *Jakin* 172; Elena Beloki eta Jean Pierre Massias: «Euskal Herriko lurralde gatazka: europar aukera zehazteko bidean», *Jakin* 175), Euskal Herriko lurralde gatazka

konpontzeko Europar Batasunak eskain ditzakeen aukeren inguruan, hain zuzen ere. Hirugarren artikuluko honetan, lurralde auzia gaitzen lagun dezaketen Europar Batasunaren erregio-politika komunitarioaren belaunaldi berriko lanabesei buruzko hausnarketa kritikoa egiten dute Gorostiaga eta Belokik.

Egunen gurrupilean sailean bi sinadura berri ditugu aurten: Haizea Barceñillak heldu dio Arte atalari, eta Goizalde Landabasoak Literaturari. Gainerako hiru atalak ia bezala geratuko dira: Inaki Irazabalbeitiak Teknologiaz lotutako gaiak dakartza, Lionel Jolyk Soziolinguistikaren ingurukoak eta Josu Larrinagak lokalari eta globalari buruzkoak Glokalia atalean. ¶

LIBURUAK

Euskal liburugintza 2008

11 JOAN MARI TORREALDAI

Euskal liburugintza 2008

JOAN MARI TORREALDAI

Soziologian doktorea eta Kazetaritzan lizentziaduna

Oker ez banago hogeita hamabigarren aldia da honekin urte jakin bateko liburu azterketari heltzen diodana. 1976ko ekoizpenean hasi eta gaur arte, urtero-urtero eta *Jakin* aldizkari orrialdeotan dihardut azterketa mota bera lantzen.

Bide luze honetan liburugintza beste askotan ere landu dugu, modu batera edo bestera, egunkari, aldizkari eta batez ere liburuetan, *Euskal idazleak*, *gaur* eta *Euskal kultura gaur* lekuko. Zehatz-zehatz gaiari lotuak dira, baita ere, *XX. mendeko euskal liburuen katalogoa* bost tomotan eta 2007an argitara eman nuen *30 urte liburugintzan*, hain zuzen ere 1976tik 2005era aldizkari honetan egin ditudan lanen laburpentxo eguneratua.

2008ko ekoizpenari heldu behar diogu orain, betiko jardunmoldean, hau da, zifrak eman eta aztertuz.

Unibertsoa zehazten

Euskal liburugintza da nire unibertsoa. Ez naiz hasiko orain zer den «euskal» eta zer ez. Garai batean hori ere eztabaidagai zen, hizkuntza ote zen osagai definitzailea ala

«pentsaera». Modatik pasatuta dago auzi hori gaur. Niretzat behintzat. Nik neuk, orduan eta orain, «euskal = euskarazkoa» egin dut, eta barnean sartzen dut liburuen kasuetan bi hizkuntzazkoa ere, elebiduna dela markatuz.

«Liburua» zer den, hori ere eztabaida genezake. Nik hemen ohiko moduan erabili ohi dut liburua kontzeptua, paperezkoa zein elektronikoa. ISBN zenbaki identifikatzailea daukatena bakarrik kontabilizatu ditut, gainera, alderaketak egin ahal izateko, nahiz eta uste dudana bestelakoak ere egiazkoak direla. Gure artean, ISBN gabeko ugari argitaratzen da: Interneten ematen dudana zerrendan horiek ere sartu ohi ditut; baina, berriz diot, zenbatu, ISBNdunak bakarrik zenbatu ditut.

Bide batez esango dut, liburu elektronikoari datorren urtean heldu beharko diodala, 2009ko ekoizpena aztertzean; izan ere, liburu elektronikoaren agerpen publikoa 2009ko Durangoko Azokan izan da.

Garbi edukita zer den liburua eta zer den euskarazkoa, badirudi erraza izan beharko lukeela kopurua zehaztea, ezta? Bada ez. Kazetetan agertzen diren zifrek ez dute errealitatea urrutitik ere islatzen sarri. Baina ez da hori okerrena. Ulergaitza da iturburuetan dagoen nahasketa. Ez zait iruditzen, gainera, goian aipaturiko irizpideen araberrako desberdintasunak sortzen duenik okerra. Alegia, kopuruaren ezberdintasuna ez dator euskal liburuaren definiziotik, datuak biltzeko modu eta metodologiatik baizik.

<i>Iturria</i>	<i>ISBN espainiar agentzia</i>	<i>Precisa / Conecta</i>	<i>Joan Mari Torrealdei</i>
2000	1.425	1.589	1.519
2001	1.326	1.621	1.488
2002	1.342	1.588	1.665
2003	1.487	1.576	1.945
2004	1.904	1.584	1.851
2005	1.793	2.094	2.016
2006	1.525	1.710	1.818
2007	1.552	2.009	2.135
2008	2.156	2.094	2.483

Goiko taula horretan ematen ditut mende berrian iturri bakoitzak agertu dituen kopuruak urtez urte.

Aurreko urteetan saiatu naiz bakoitzaren metodologia zehazten, eta diferentziak nondik datozkeen aipatzen, edo salatzen.

Neurea ere azaldu izan dut luze eta zabal. Laburrean bada ere azalduko dut berriz nola moldatzen dudan nire zerrenda, eta horren gain azterketa.

Lehen iturria, eta nagusia gainera, editoriala bera da: argitaletxeek liburuak bidaltzen dizkirate, edo fitxa bibliografiakoak: %60tik gora horrela osatuta gelditzen da. Hutsuneak betetzeko, eta informazioaren kontrasterako, liburutegiak erabili ohi ditut, modu berezi-berezian Gipuzkoako Foru Aldundiko Koldo Mitxelena, Donostiako Udal Liburutegia eta horiekin batera Euskadiko Liburutegi Sistema Nazionalako datu basea. Horrela osatzen dut beste %20-30 bat. Ezin gaitezke hor gelditu, ordea. ISBNko datu basea ere arakatzten dut, eta Internet bidez argitaratzaileen webguneak informazio bila. Azken iturri horiek ere behar-beharrezkoak dira daturik bidaltzen ez didaten (bai baitaude!) euskal argitaldarien informazioa jasotzeko eta bereziki Euskal Herritik kanpoko editorialetan agertu diren euskal liburuen berri izateko.

Hori guztia kontuan hartuta, 2.483ko kopurua atera zait niri. Horiek badira, izan, fitxa eta guzti baititut; baina betikoa: seguru fitxatu gabeko besterik ere egongo dela.

Jardun editoriala

Ekoizlea bera, bere ezaugarriak eta bere eskaintza, aztertu ohi ditut sailtxo honetan.

299 argitaratzaile

Argitaratzaile idatzi dugu eta ez argitaletxe, esan nahi baita era askotarikoak direla liburu ekoizleak. Batzuk profesio-

nal peto-petoak, baina bestelakoak ere ugari: elkarteak, taldeak, autore editoreak, zerbitzu editorial gisakoak.

2008an tituluren bat kaleratu dutenak ugari dira: 299, titulu bakarra atera dutenak horietako gehienak.

<i>Tituluak</i>	<i>Argitaratzaileak</i>
1	167
2-4	65
5-9	25
10-19	27
20-29	1
30-39	1
40-49	1
50-59	0
60-69	1
70-79	1
80-89	2
90-99	2
100-149	4
150etik gora	2

2.483 liburu argitaratzeko 299 eragile, asko iruditzen zait niri. Gehiegi den esatera ez naiz ausartzen, liburua ateratzea horren erraza izanik, inguruko kulturetan ere gauza bera gertatzen baita. Eragile ugari izateak ez du esan nahi, besterik gabe, eskaintza aberasten denik. Hori ez. Errazago kontrakoa.

Aurtengo produkzioan eragileen erdiak baino gehiagok (%56) titulu bakarra atera du. Are gehiago: %86 da hamar titulu baino gutxiago atera duena, %86. Txanponaren beste aldea zera da: hamar titulu edo gehiago atera dutenak %14 bakarrik direla. Eta hain zuzen ere, kopuru horietantxe hasten da editorial bat gorputza hartzen, egitarauaren arabera plangintza egiten, kultur egitasmoak gauzatzen. Hori kontuan edukita errepikatu ohi dut urtero gauza bat dela ugari-tasuna eta beste bat aberastasuna, aniztasuna.

Argitaletxe nagusiak

Indarra edo tamaina neurtzeko ohikoa da negozio maila erabiltzea neurgailu gisa. Hala egin ohi da azterketa ekono-

mikoetan, adibidez. Guztiz apala da nire aztergailua, soilki liburu ekoizpenaren arabera.

<i>Argitaletxea</i>	<i>Nobedadeak</i>	<i>Berrarg.</i>	<i>Titulu kopurua</i>	<i>%</i>
Ibaizabal-Edelvives	121	171	292	11,8
Elkar	66	214	280	11,3
Anaya	111	5	116	4,7
Elkar/ Ikastolen Elkartea	0	100	100	4, -
Ttarttalo	71	29	100	4, -
Ikasmina	94	1	95	3,8
Erein	44	46	90	3,6
Giltza-Edebé	72	13	85	3,4
Aizkorri-Everest	25	56	81	3,4
Zubia-Santillana	69	9	78	3,1
<i>Guztira</i>	<i>673</i>	<i>644</i>	<i>1.317</i>	<i>53, -</i>

Aurreneko hamarren ondoren Alberdania dator, 60 titulu-ekin eta Susaeta 45ekin. Atzerago multzo handi bat, 30 bat argitaratzaile, 10-30 titulu atera dituztenak.

Aurreneko hamarretara itzuliz, titulu ekoizpen osoaren erdia eta gehiago zor zaie horiei: %53, aurreko urteetan baino gehixeago: 1.317 titulu. Hamar argitaletxeok ez dute multzo homogeneoa osatzen: alde handia dago produkzioan, jatorri desberdinekoak dira, etab. Jatorriaren puntu hori ez da munta gabea. Hamarretik seik etxe nagusia kanpoan dute, bada datu bat. Eta beroriek dira nagusi hamarron arteko produkzioan: %56,5, hemengoan %43,5en aurka. Produkzioaren baitan ia parean daude nobedadeak eta berrargitalpenak: %51 nobedadeentzat eta %49 berrargitalpenentzat. Baina argitaletxe guztiek ez dute politika edo jokamolde bera kasu honetan ere. Bertokoek berrargitalpenetik jotzen dute: %60,5. Kanpokoek, aldiz, nabarmen lehenesten dute lehen edizioa: hamarren artean ekoitzi duten liburu berriaren %73 kanpokoena da.

Datu horien interpretazioak luze joko liguke, ez gara orain luzatuko, baina ez da interes gabea argitaletxe nagusien jatorria eta ekoizpen mota ezagutzea. Horretara mugatuko gara.

Argitaratzaile motak

Aurreko pasartean jada zertxobait aipatu dugu. Tipologia jakin batekin jokatu ohi dut azterketa honetan. Tipologia editorialetan ohikoa da izaera edo jardunmoldez bereiztea etxeak, hala nola, argitaletxe komertzialak, argitaletxe publikoak edo administrazioaren baitakoak, argitaratzaile koiunturalak edo albokoak (unibertsitate, fundazio, elkarte, talde, etc.). Nik ezaugarri berri bat erantsi ohi dut, egokitasunagatik, jatorriari dagokiona. Jatorriaren arabera, bertoko eta kanpoko bereizten ditut, segun eta etxe nagusia Euskal Herrikoa den ala ez.

Berez argitaratzaile mota ez da baina bai modalitate bat, eta horregatik sartu ohi dut koedizioa, eragile bi edo gehiagoren artean egindako argitalpena, alegia.

Edozein delarik tipologia, gauza bat da nabarmendu beharrekoa: euskal liburuaren argitaratzaile gehien-gehienak ez dira argitaletxe, edo sektoretik kanpokoak dira.

<i>Argitaratzaile mota</i>	<i>Ekoizleak</i>	<i>Ekoizpena</i>	<i>%</i>
Bertoko argitaletxe pribatu komertziala	54	1.116	45, -
Argitaratzaile publikoa	53	287	11,5
Elkarte, talde, fundazio...	93	201	8, -
«Kanpokoak»	45	620	25, -
Irakaskuntzakoa	20	85	3,5
Koedizioa	21	139	5, -
Besterik	13	44	2, -

Tipologia honetako argitaratzaileen ekoizpen ezaugarri batzuk aipatuko ditut segidan.

- *Bertoko argitaletxe pribatua*

Ekoizleen %18 dira eite honetakoak; ez hainbeste, ikusten denez, baina berauek osatzen dute multzorik indartsuena, bidezko denez: %45 ekoitzi dute. Berrargitalpenetan dira batez ere indartsu. Produkzio osoan %30 suposatzen du berrargitalpenak, eta horren %70 bertoko argitaletxe pribatu komertzialei zor zaie.

Eta gaien aldetik zer? Gaien egiturarik orekatuena argitaletxe mota honena da, zalantzarik gabe. Lehentasunen hurrenkeran aurrena haur eta gazteentzako liburua da (%38,2) eta gero irakaskuntza (%27,1). (Egiaz eta benetan ez litzateke horrela, Elkar eta Ikastolen Elkartek elkarrekin ateratakoak koedizioaren sailean barik hemen sartuko bagenitu.) Hirugarren lekuan dator helduen literatura, %20,5ekin.

- *Argitaratzaile publikoa*

Aurreko multzoko agenteak adina badira hauek ere (%18), baina ez dira indartsuak, guztira ekoizpenaren %11,5 egin baitute. Ez da gutxiesteko emaitza, hala ere, ia 300 titulu baitira.

Administrazio publikoko ekoizleen artean urteroko bera da nagusi, Eusko Jaurlaritza, %56,8rekin. Sekula baino atzerago datoz gainerakoak: Gipuzkoako Foru Aldundia (%6,7), Nafarroako Gobernua (%5,9). Udalen esku hartzea ez da baztertzekoa: 31 udalek hartu dute parte eta %10,9 ekoitzi dute.

Argitaratzaile publikoen liburuak izaera soziala izan ohi du gehienetan eta giza edo gizarte zientzietako sailean kokatzekoa izan ohi da, %66 aurten. Jakina da, baita ere, bizialdi bakarreko liburua izan ohi dela, gehienetan edo beti, liburu mota hau. Administrazioak bere liburuari ez dio merkatu segimendurik egiten.

- *Elkarte, talde eta gisa berekoak*

Ekoizle multzo handia da hau, guztietan handiena (%31). Ekoizpena, aldiz, txikia: %8. Liburuak argitara ematea ez baita hauen egiteko behinena. Multzo honen ahulezia editoriala seinatzeko, bi ohartxo: beratuetako %61,5ek titulu bakarra atera du. Are: hamar titulutik gora atera dutenak hiru bakarrik dira.

Aurtengo edizioko indartsuenen artean agertu zaizkigu: Alboan, BBK, *Berria*, Eusko Ikaskuntza, Kutxa.

Bizialdi bakarreko liburua da hau ere.

- *«Kanpoko»*

Izaera desberdineko agenteak bildu ditugu multzo hone-tan, baina gehienak eta indartsuenak argitaletxe profesiona-lak dira, merkatu estatalean ongi kokatuak. Ez dira ekoizle gutxi (%15), eta ekoizpenaren %25 hornitzen dute.

Kontsumo gehien duen materiala ekoizten dute, gainera. Argitaletxe hauen ekoizpenaren %94,5 bi sail jakinetan me-tatzen da: irakaskuntza liburuan eta haur eta gazteentzakoan. Hortik kanpo 33 titulu gelditzen dira gainerako alor guz-tien artean banatzeko.

Produkzioaren kontzentrazioaz gainera, bi ezaugarri gehia-go ere badituzte: bata, arestian aipatu duguna, hots, berrargi-talpenaren maila apala (%15,5); eta, bigarrena, itzulpenaren (aitortua edo mozorrotuaren) sekulako pisua.

- *Irakaskuntzakoak*

Ez da multzo handia, ez garrantzitsua, ez ekoizleetan (%6,5), ez ekoizpenean (%3,5). Multzo honek ere indar handiagoa luke, baldin eta Ikastolen Elkarteak Elkar argitaletxearekin batera ateratzen duena hemen kokatu izan bagenu.

Hemen kokatu ditugun erakundeak irakaskuntzakoak di-ra gehienak, irakaskuntzako profesionalak dira. Lehoiaren zatia EHUri dagokio (%46), UEU dator gero (%13), eta hu-rrena Deustuko Unibertsitatea (%9,5).

Jaio bezala hiltzen da edizio hau, lehen argitaraldian: %8 bakarrik da berrargitaratua.

- *Koedizioa*

Konbinaketa askotan lotzen dira eragileak hemen: izan li-teke editore profesionala fundazio edo elkarte batekin, edo beste editore profesional batekin, edo editore publikoarekin; eta berdin elkarte bat eite bereko beste batekin, edo admi-nistrazioarekin edo editore profesionalarekin. Hamar kasu-tan editore profesionalak daude tarteko; eta beste hainbeste-tan elkarteak erakundeekin elkarlanean. Koedizioa gaur

transbertsala baita, konbinaketa ugarikoa, eta ez euskal irakaskuntzaren hastapen haietan bezala, hemengoek kanpokoan laguntzaz mamitzen zutena.

21 eragile kokatu ditugu multzo honetan (%7), eta ekoizpenaren %5 suposatzen dute. Egia esan, deus gutxi litzateke multzo honen garrantzia Elkar eta Ikastolen Elkartearen arteko elkarlana gabe. Esate baterako, elkarlan horri eskerrak multzo honetako berrargitalpenak maila altua du (%75,5), baina hori ez balitz huts-hutsa litzateke.

Eskaintza editoriala

Ekoizleak aztertu ondoren, on da mami aldera jauzi egi-tea. Baina produktua arakatu aitzin, produkzioa nola gauzatu den erreparatu behar da. Protagonistak aztertu ditugu orain arte, eta aurrerantzean emaitzak aurkeztuko ditugu.


Ekoizpenaren indar lerro nagusiak zein emaitzak azter-tzerakoan, informazioari zukua ateratze aldera, kontzeptu bera modu askotan itzulikatuko dugu. Beti kezka berari erantzunez: datua bere bakardadean isolatuta ikusi ordez, kontestualizatu, perspektiban ikusi eta analizatu. Datu hori tertziok baloratu ahal izateko, atzetik zer duen jakin behar da. Atzetik zer duen eta zer duen inguruan. Ikuspegi diakronikoa eta sinkronikoa.

Ondoko orrialdeetan datu bera hiruzpalau aldiz ikusten ari denaren inpresioa eduki lezake irakurleak. Baina ez. Datua behin baino gehiagotan berbera izanik ere, informazioa ez da bera. Informazioa zehazte aldera, ikuspegi desberdi-netatik errealitate berari heldu nahi izan diogu. Zertan datzan kezka? Datu batek, kopuru jakin batek, deus gutxi balio du dagokion ingurumarian kokatzen ez bada. Kontestualizatze hori bikoitza da, sinkronikoa eta diakronikoa. Nobedadea berredizioarekin alderatu behar da, esate baterako. Baina ez sinkronikoki bakarrik. Datu horrek berorrek, informazio horrek, zer balio duen historian, zehatzago esanda, eta aurreko adibidearekin: nobedadeak berredizioa-

rekiko duen proportzioa nola gertatu da aurreko urteetan? Erantzuna emateko, zenbat eta erreferentzia gehiago izan, hobeto.

2.483 titulu

Tituluen kopuru kontuan dagoen anabazaz jada mintzatu naiz. Nik neuk kopuru hori eman dut ontzat, froga eta guzti, titulu bakoitzak bere fitxa bibliografiko osoa baitu. Orain arteko fitxa bibliografikoak bezala hemendik aurreragokoak *Jakin* aldizkariaren webgunean agertuko dira (ikus www.jakingunea.com).




XXI. mendeko lehen bederatzi urteetako tituluak balio absolututan agertzen dira grafikoan. Begien bistan dago azken bi urteotan jo duen gorakada, 665 titulu bi urte segidan. Mendean zehar hiru jaitsaldi izan ditu, baina ez du ematen erosta jotzekoak direnik, jaitsierak baino ugariagoak ez eze, handiagoak izan baitira gorakadak. Tituluen hazkundeari begiraturaz krisia ez da nehon ageri.


Tituluen eboluzio-lerroa

Goiko grafiko ia bera da, nahi baldin bada, baina gorabeherak zehatz adierazi ahal izateko 2000. urtea hartu da erre-

ferentzia gisara, eta horrek informazioa beste modu batera nabarmentzen du. Aurtengo datuaren balioa nabarmen ageri da; izan ere, 2000. urteko ekoizpenarekin alderatuz, 63,5 puntu gora dago 2008. urtekoa, eta iazkoaren gainetik 23 puntu.




Tituluen eboluzio indizea



Urtetik urterako eboluzioaren tamaina bisualizatzen da grafiko honetan. Hiru urte beltzetako jaitsiera indizeaz gainera, azpimarratzekoa da azken bi urteotako indizea positiboa izan dela.

Nobedadeak eta berrargitalpenak



Balio absolutuetan ageri da grafikoan ekoizpena bere bi osagai nagusiekin: nobedade eta berrargitalpenekin. Azaletik begiratuta ere ikusten da ez bakarrik nobedadeen lerroa produkzio osoarenetik gertuago dagoela, baizik beste hau ere bai: gorabeheren marrak ekoizpen osoaren irudi bera duela ia beti.

Nobedade-berredizioaren erlazio hori urtez urte zehatz zenbatekoa izan den, ondoko taulan ikusten da ondo.

<i>Urtea</i>	<i>Nobedadea</i>	<i>Berrargitalpena</i>
2000	70,4	29,6
2001	76,1	23,9
2002	72,2	27,8
2003	72,1	27,9
2004	75,6	24,4
2005	71,7	28,3
2006	71,5	28,5
2007	71,-	29,-
2008	70,-	30,-
<i>Batez beste</i>	<i>72,5</i>	<i>27,5</i>

Grafikoan ia ikusezina bada ere, azken hiruzpalau urtetan pisu pittin bat irabazi du berrargitalpenak. Altuena, hain zuzen, 2008an du: %30.


Ikuspegi zabalagoa hartuko dugu hurrengo taulan. Emanen ditudan bost erreferentzietatik balio hoberenak azkene-

koan ditu berrargitalpenak. Erreferentzia horietan, bi urte multzotako zifrak batez bestekoak dira: 30 urtetakoa bata (1976-2005) eta sei urtetakoa bestea (2000-2006). Ezin da segurutzat eman argitalpenaren %30 hori balio egonkorra denik. Miresten dudan Frantziako eredura joz gero, asko luke irabazteko berrargitalpenak, %45era iritsi arte.

	1976-2005	2000-2006	2006	2007	2008
Nobedadeak	75	72,8	71,5	71	70
Berrargitalpenak	25	27,2	28,5	29	30

Nobedadeak


Nobedadeen eboluzio-lerroa



Abiapuntuko urtea 2000. urtea izanik, urte baten salbuespenarekin gora egin du etengabe, intentsitate ezberdinez bada ere. Aurtengo igoeraren lerroaren norabidea tituluaren igoeraren lerroaren parekoa da; izan ere, igoera neurri on batean nobedadeei zor zaie, zehazki 235 titulu.

Nobedadeen eboluzioaren indizea

Azken bi urteotako zutabeak ikusita, 2006. urteko jaitsaldia ahazturik utz liteke, nobedadeak iaz 16 puntu eta aurren 15 puntu gora egin duela ikusita.



Nobedadeetan jatorrizko eta itzulitako liburuak

Urrats bat aurrerago eginez, honakoa aztertuko dugu ondoren: nobedadeen barruan, zein den euskaraz sorturiko liburuaren pisua eta zein itzulitako liburuarena. Ikuspegi kultural batetik interes handiagoa du jakiteak lehen aldiz publikatzen den liburua jatorriz euskarazkoa ala inportaziokoa den.

Ondoko taulan ikus daiteke bien arteko erlazio hori zer nolakoa izan den 1976tik gaur arte.


	1976-2005	2000-2006	2006	2007	2008
Jatorrizkoa	66	70	66	65	60
Itzulitakoa	34	30	34	35	40

Ematen du ezarian-ezarian itzulitako liburua lurra hartuz doala. Ezin da esan, hala ere, aurtengo %40 hori iragankorra ala egonkorra den. Baliteke proportzio hori altuegia izatea, baina azken hiru urteotan gorako joera ikusten zaio itzulpenari.

Hurrengo taulak iragan hurbilagoa fokalizatzen du, 2000. urtetik 2008. urtera bitarteko aldia, XXI. mendea. Urtealdi osoaren batez bestekoan indar askoz txikiagoa du itzulpenak (%31,5). Txikia eta dena ematen du oraingo %40rekin alderatuta.

Urtea	Jatorrizkoa	Itzulpena
2000	73,7	26,3
2001	69,4	30,6
2002	67,3	32,7
2003	69,2	30,8
2004	73,-	27,-
2005	73,5	26,5
2006	66,-	34,-
2007	65,-	35,-
2008	60,-	40,-
<i>Batez beste</i>	68,5	31,5

Jatorrizko liburua eta itzulpena elkarrekin




Horra nobedadea bere bi osagaiekin. 2006ko krisiaren ondoren, jatorrizkoa itzulitakoa bezala gora ari da. Baina ez biak indar berarekin, batez ere aurten. Aurtengo nobedadeetan, 174 dira itzulitakoak eta 61 bakarrik jatorrizkoak.


Jatorrizkoa

Jatorrizko liburuaren eboluzio-lerroa

2006ko jaitsiera, jaitsiera handia izan zen, 202 titulu galdu baitzituen. Hala zen orduan, eta hala da perspektiban ikusita ere. Jaitsiera horretatik errekuperatu gabe dagoela ematen du, ez baita oraindik iritsi 2005eko balioen gailurrera, urruti ez bada ere.



Jatorrizko liburuaren eboluzioaren indizea




Mende berrian *de facto* bi aldiz dago negatiboan jatorrizko liburua, aurrenekoa xoil txikia izan bazen ere. Bigarren jaitsaldia ez da txantxetakoia izan, goian aipatu dugun moduan.


Itzulitakoa

Itzulitako liburuaren eboluzio-lerroa

Hurrengo grafikoak ondo islatzen du itzulitako liburuaren eboluzioa eta oraingo gailurra.




Itzulitako liburuaren eboluzioaren indizea



Mende berriko lehen hamarkadaren erdi aldeko krisialdiaren ondoren indar berriturik ageri da, gero eta indartsuago gainera.


Berrargitalpenak

2008. urteko ekoizpenak gorakada izan du bi liburu mote-tan, izan nobedade edo berrargitalpen. Baina ez bietan kopuru berean: titulu berriak 235 dira, eta berrargitaratuak, aldiz, 113.

Berrargitalpenen eboluzio-lerroa

Bai hautsia eta gorabeheratsua berrargitaraldien eboluzio-lerroa! Egia esan, ez dakit zeri dagokiokeen. Agian ikas-materialei? Jakina baita liburu mota horren kadentzia ez dela editorialki autonomoa eta bai irakaskuntza plangintzek eragindakoa.

Bi urte segidan gora egiten duen bigarren aldia da XXI. mendean.

Berrargitalpenen eboluzioaren indizea

Igoerak nahiz jaitsierak, biak dira tamainagatik aintzat hartu beharrekoak liburu mota honetan. Azken bi urte

hautetan bide egonkorra hartu ote du? Igoerak bietan dira serioak.

Berrargitalpenen mailaketa

Teknologia berriekin egia da asko erraztu dela liburuaren berriz inprimategian sartzea, kopurua edozein delarik ere. Bestalde, tiradak doitu egiten dira orain. Berrargitalpenari garrantzi kulturala kentzeraino erlatibizatzen ote du teknologiak? Ez dut uste. Nahiz eta berriz inprimatzea erraza izan, batzuek lortzen dute hori eta beste batzuek ez, denentzako erraza izanik ere. Alferrik da, beti da seinale ona berrargitalpena, liburuari bizialdi berria ematea baita.

Berrargitalpenen maila

Lehen argitaraldia.....	1.746 titulu
Bigarren argitaraldia.....	280
Hirugarren argitaraldia.....	95
Laugarren argitaraldia.....	71
Bosgarren argitaraldia.....	62
Seigarren argitaraldia.....	59
Zazpigarren argitaraldia.....	34
Zortzigarren argitaraldia.....	41
Bederatzigarren argitaraldia.....	27
Hamar argitaraldi edo gehiago.....	67

Logikoa denez, urteko liburu gehien-gehienak nobedadeak dira: zehazki 1.746, hots, urteko ekoizpenaren %70.

Berrargitaratutako liburuen kopurua, guztira, 737 da, hau da, %30.

Liburu horietako batzuk lehen aldiz berrargitaratu dira 2008an, zehazki 280. Baina badira urtetan zehar argitaratuz joan direnak, bateren bat 44 bider argitaratzeraino aurtengoarekin.

Ulerterraza denez, berrargitaratuen multzorik handiena bitik hamarrera berrargitaratu direnen multzoa da: %27. Hamar eta hogeita argitaraldiren arteko osaturiko multzoa hagitz txikiagoa da: %2. Eta %1era apenas iristen den hortik gorakoena: 20 tituluk 20 ediziotik gora izan dute.

Ondoko zerrendan daude hamar ediziotik gorakoak, izen eta guzti.

Hamar argitaraldi eta gehiago

10. argitaraldia

<i>Botila baten historia</i>	Elortza, Tomas
<i>Egun denak ez dira berdin</i>	Etxeberria, Xabier
<i>Elhuyar hiztegi txikia. Euskara-gaztelania / Castellano-vasco</i>	Elhuyar Hizkuntz Zerbitzuak
<i>Euskara eta Literatura. Batxilergoa. 1. DBHO.</i>	
<i>A-Eredua. Lan-koaderno</i>	Ugarte, Alberto eta beste
<i>Euskara eta Literatura. Batxilergoa. 2. DBHO.</i>	
<i>A-Eredua</i>	Ugarte, Alberto eta beste
<i>Euskara eta Literatura. Batxilergoa. 2. DBHO.</i>	
<i>A-Eredua. Lan-koaderno</i>	Ugarte, Alberto eta beste
<i>Gloria Mundi</i>	Morillo, Fernando
<i>Ipuin batean bezala</i>	Irigoien, Joan Mari
<i>Krokodiloa ohe azpian</i>	Landa, Mariasun
<i>Kuki (Batueraz)</i>	Arejita, Marije eta beste
<i>Leturiaren egunkari ezkutua</i>	Txillardeggi
<i>Obsexuen kluba</i>	Mendiguren Elizegi, Xabier
<i>Pijama marradunaz jantzitako mutikoa</i>	Boyne, John

11. argitaraldia

<i>Atlas sentimental. Egonaldi bat Marokoko berbereen artean</i>	Zubizarreta, Patxi
<i>Bakarka 5</i>	Mujika, Jose Antonio
<i>Bostak berriro Kirrin uhartean</i>	Blyton, Enid
<i>Euskara eta Literatura. Batxilergoa. 1. DBHO. A-Eredua</i>	Ugarte, Alberto eta beste
<i>Ortzadarra sutan</i>	Morillo, Fernando
<i>Suzko zapatak eta haizezko sandaliak</i>	Wölfel, Ursula

12. argitaraldia

<i>Bakarka 3</i>	Letamendia, Juan Antonio
<i>Euskara eta Literatura. Batxilergoa. 1. DBHO</i>	Agirre, Ana Maria era beste

13. argitaraldia

<i>Bakarka 2</i>	Letamendia, Juan Antonio
<i>Behin batean - Idazketa 3 (LH)</i>	Olabarri, Miren eta beste
<i>Harresi Handirantz</i>	Arretxe, Jon
<i>Izu-istorioak</i>	Stoker, Bram
<i>Koaderno handia</i>	Kristof, Agota
<i>Tentazioak</i>	Osoro, Jaseon

14. argitaraldia
100 metro
Behin batean - Idazketa 1 (LH)
Behin batean - Idazketa 2 (LH)
Bristol-eko hilketa
Haltzak badu bihotzik
Koaderno handia
 Saizarbitoria, Ramon
 Olabarri, Miren eta beste
 Olabarri, Miren eta beste
 Prowse, Philip
 Mendiguren Bereziartu, Iñaki
 Kristof, Agota
15. argitaraldia
Eskola Hiztegia 2000
Jolas egiteko ipuinak
 Bostak Bat
 Rodari, Gianni
16. argitaraldia
Bakarka 4
Bi anai
 Mujika, Jose Antonio
 Atxaga, Bernardo
17. argitaraldia
Bakarka 1
Londresen nago aitonarekin
SPrako tranbia
 Letamendia, Juan Antonio
 Iturralde, Joxemari
 Elorriaga, Unai
18. argitaraldia
Bakarka 1
Ezer baino lehen
Ezin da ipuinik asmatu ala?
SPrako tranbia
 Letamendia, Juan Antonio
 Iturbe, Arantxa
 Mendiguren Elizegi, Xabier
 Elorriaga, Unai
19. argitaraldia
Irakasle alu bat
Narrazioak
 Mendiguren Elizegi, Xabier
 Sarrionandia, Joseba
20. argitaraldia
Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian
Izurri berria
 Atxaga, Bernardo
 Garate, Gotzon
21. argitaraldia
Desagertutako emakumea
Eztia eta ozpina
Goizuetako ezkongaiak
Kittano
 Prowse, Philip
 Zubizarreta, Patxi
 Garate, Gotzon
 Ormazabal, Joxan
22. argitaraldia
Connemara gure bihotzetan
Kittano
 Gabiria, Julen
 Ormazabal, Joxan
23. argitaraldia
Connemara gure bihotzetan
 Gabiria, Julen
24. argitaraldia
Behi euskaldun baten memoriak
Istanbul-en elkartuko gara
 Atxaga, Bernardo
 Chisholm, Richard

26. argitaraldia <i>Babilonia</i>	Irigoien, Joan Mari
32. argitaraldia <i>110. Street-eko geltokia</i> <i>Ostegunak</i>	Zabaleta Urkiola, Iñaki Arretxe, Jon
33. argitaraldia <i>110. Street-eko geltokia</i> <i>Ostegunak</i>	Zabaleta Urkiola, Iñaki Arretxe, Jon
34. argitaraldia <i>Ostegunak</i>	Arretxe, Jon
42. argitaraldia <i>Kutsidazu bidea, Ixabel</i>	Sagastizabal, Joxean
43. argitaraldia <i>Kutsidazu bidea, Ixabel</i>	Sagastizabal, Joxean
44. argitaraldia <i>Kutsidazu bidea, Ixabel</i>	Sagastizabal, Joxean

Argitaraldi bat baino gehiago urte berean

2008an edizioaldi bat baino gehiago izan dutenak ez dira bat edo bi. 41 titulu dira urte berean bi ediziokoak. Hiru izan dutenak lau dira. Lau edizio izan duenik ere bada: *Zoaz infernura, laztana*. Zazpi aldiz inprentaratu den bat ere bada oraingoan. *Pijama marradunaz jantzitako mutikoa* da hori. Kasu bitxia da benetan, aurten zazpi argitaraldi izan dituelako ez eze, iaz hiru izan zituelako ere bai. Bi urteren buruan hamar ediziotara iritsi da.

1/2 edizioak

<i>Abertzaleak eta euskara. Edo nazio</i> <i>euskaldunaren gainbehera</i>	Odriozola, Joxe Manuel
<i>Altxor uhartea</i>	Stevenson, Robert Louis
<i>Bestea da mundua</i>	Irigoien, Joan Mari
<i>Bilbao-New York-Bilbao</i>	Uribe, Kirmen
<i>Egunsentiaren esku izoztuak</i>	Lete, Xabier
<i>Erljio Katolikoa 1. Lehen Mailako</i> <i>Hezkuntza</i>	Asuncion, Mercedes eta beste
<i>Ero</i>	Martin, Jon
<i>Euskal Herri imajinario baten alde</i>	Leoné, Santiago
<i>Gau ilunekoak</i>	Sarrionandia, Joseba
<i>Gizona ilunpean</i>	Auster, Paul

<i>Golgota</i>	Montoia, Xabier
<i>Ilargia.com</i>	Santos, Care
<i>IV. Inkesta Soziolinguistikoa 2006</i>	Kultura Saila (E.J.)
<i>Kafka eta panpina bidaiaria</i>	Sierra i Fabra, Jordi
<i>Mandatariaren gerra</i>	Basterretxea, Jose Inazio
<i>Nur eta irlandar gnomoa</i>	Martinez de Lezea, Toti
<i>Oihaneko liburua</i>	Kipling, Rudyard
<i>Peter Pan</i>	Atela, Aintzane eta beste
<i>Pirritx eta Porrotx. Sukaldean. Errezetak.</i>	
<i>Ipuinak</i>	Diaz de Monasterio, A. eta beste
<i>Suminaren estrategia</i>	Morillo, Fernando
<i>XXI. mende hasierako Hizkuntza Politikaren Oinarriak. Euskara, XXI mendeko hizkuntza bizia egunerokoa eta noranahikoa.</i>	
<i>Oinarrizko txostena, 2008ko apirilaren 29a</i>	Arkotxa, Aurelia eta beste
1/2/3 edizioak	
<i>Jendaurrean hizlari. (Ahozko) Komunikazio Gaitasuna Lantzeko Eskuliburua</i>	Garzia, Joxerra
1/2/3/4 edizioak	
<i>Zoaz infernura, laztana</i>	Lertxundi, Anjel
2/3 edizioak	
<i>Antzararen bidea</i>	Muñoz, Jokin
<i>Kaio baten historia eta hegan egiten irakatsion katuarena</i>	Sepulveda, Luis
3/4 edizioak	
<i>Sua falta zaigu</i>	Agirre, Katixa
4/5 edizioak	
<i>Ikaslearen liburua 3 (Material globalizatua) (Txanela). LMH. 1. zikloa</i>	Saenz, Maite eta beste
<i>Ikaslearen liburua 4 (Material globalizatua) (Txanela). LMH. 2. zikloa</i>	Saenz, Maite eta beste
<i>Irakurgaiak 3 (Txanela). Lehen Hezkuntza. 1. zikloa. 3. kurtsoa</i>	Elkar
<i>Irakurgaiak 4 (Txanela). LMH. 2. zikloa</i>	Askoren artean
4/5/6 edizioak	
<i>Munduari itzulia 18 ipuinetan</i>	Irusta, Antton
4/5/6/7/8/9/10 edizioak	
<i>Pijama marradunaz jantzitako mutikoa</i>	Boyne, John
5/6 edizioak	
<i>Arriskupean!</i>	Morillo, Fernando
<i>Coca-Cola Erdi Aroan</i>	Mintegi, Migel Angel
<i>Dorretxe zaharreko misterioa</i>	Morillo, Fernando


6/7 edizioak <i>Urtebete itsasargian</i>	Meabe, Miren Agur
8/9 edizioak <i>Amaren eskuak</i> <i>Zoritxarreko amodioak</i>	Jaio, Karmele Hardy, Thomas
9/10 edizioak <i>Ipuin batean bezala</i>	Irigoién, Joan Mari
13/14 edizioak <i>Koaderno handia</i>	Kristof, Agota
17/18 edizioak <i>Bakarka 1</i> <i>SPrako tranbia</i>	Letamendia, Juan Antonio Elorriaga, Unai
21/22 edizioak <i>Kittano</i>	Ormazabal, Joxan
22/23 edizioak <i>Connemara gure bihotzetan</i>	Gabiria, Julen
32/33 edizioak <i>110. Street-eko geltokia</i>	Zabaleta Urkiola, Iñaki
32/33/34 edizioak <i>Ostegunak</i>	Arretxe, Jon
42/43/44 edizioak <i>Kutsidazu bidea, Ixabel</i>	Sagastizabal, Joxean

Gaiak

Beste jauzi bat egin behar dugu orain. Bigarrena: ekoizleen-gandik ekoizpenera egin dugu lehena. Eta ekoizpenaren mamira egin behar dugu orain. Produkzioa aztertzetik produktua aztertzerara, esan genezake, nolabait adieraztearren. Bestela esan, zertaz idatzi den euskaraz 2008an, hori da jarraian arakatuko duguna.

Gaien azterketa hau lehen ordutik interesatu izan zait. Hain zuzen ere, horixe jakitearren hasi nintzen liburugintza aztertzen 1976 urruti hartan. Zenbat idazten den inportantea da. Askoz ere gehiago zertaz idazten den, nire ikuspegiari.

Urteko liburuak oro CDUren arabera gaika sailkatu ondoren, aro modernoan zehar bi multzo bereiz daitezke irizpide kuantitatiboen argitan. Lehen multzoan eta hurrenke-ra honetan datoz gai sailik hornituenak: hezkuntzarako liburuak, haur eta gazteentzakoak, giza edo gizarte alorrekoak, eta literaturakoak. Bigarren multzoa sareagoa da askoz titulu kopuruaren aldetik: zientzia eta teknikakoak, aisiarakoak, erlijiokoak eta beste.



2008ko liburu ekoizpenean gai eremu bakoitzean tituluaren kopurua zein den azaltzen du grafikoak, argazki batean bezala. Alegia, zein den kopurua eta zein den gai bakoitzaren pisua ekoizpenaren barruan.

Hurrengo taulan ere, kontzeptu berak azaltzeaz gainera, modu diakronikoan erakutsi nahi da gaiaren eboluzioa 2000. erreferentzia-urtearekiko.

Gai multzoa	Zenbaki absolutuak	%	2008/2000
Hezkuntza. Irakaskuntza	872	35, -	+ 71,3
Haur eta gazteentzako liburuak	645	26, -	+ 73,8
Giza/gizarte zientziak	447	18, -	+ 74,6
Helduen literatura	302	12, -	+ 17,9
Zientzia. Teknika	110	4,5	+ 86,4
Aisia liburuak	66	3, -	+ 38,7

Ondoko orrialdeetan gai eremuok banan-banan arakaturiko ditugu.


Hezkuntza eta irakaskuntza: 872 titulu

	1976-2005	2000-2006	2006	2007	2008
Irakaskuntza	31	33,5	27,5	32	35

Liburugintza aro modernoan sartu zenetik, irakaskuntzara zuzenduriko liburuak dira ekoizpenean nagusi. Aurten, esate baterako, hirutik bat pasatxo da liburu mota hau.


Liburu mota hau, agerikoa denez, gehiena da titulutan; eta gehiena da aleetan ere, tiradarik handienak hemen egiten baitira. Ekoizpen mota orekatuena ere honena da, seguruenik. Esan nahi baita nobedade eta berrargitalpenen arteko erlazioa besteetan baino egokiagoa dela hemen: nobedadearen pisua %62,5 da eta berrargitaldiena %37,5. Aldi berean, puntu ahul bat ere badu, eta da nobedadeetan erdal jatorria indartzen ari dela. Aurten %43,5 izan da itzulia irakaskuntzako liburuetan.

Irakaskuntzaren eboluzio-lerroa



Bai bitxia eboluzioaren lerroa: bi urtetan jarraian gora egin ostean, hirutan behera egin du, ia zuloraino egin ere. Aurten, ordea, 15 puntuz gailentzen du orain arteko gailurra. Aurten 187 titulu gehiago atera dira, eta 872ko kopuru hori mende berriko batez bestekoaren (629) nahikoa gaintik dago.

Irakaskuntzaren eboluzioaren indizea



Zutabe beltzak bestelakoak baino ugariago dira hemen. Kontua da, hala ere, ekoizpenak gorantz egiten duenean indarrez egiten duela. Arestian ere iradoki dut erritmo horren zioa liburu mota honek hezkuntza egitarauetikiko duen mo-rrontzan egon daitekeela.

Barne sailkapena

Didaktika. Pedagogia. Orientabideak.....	4,5
Hezkuntzaren antolakuntza.....	1,-
Haur eskola. Oinarrizko irakaskuntza.....	22,-
Lehen Hezkuntza.....	35,-
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.....	35,-
Euskararen irakaskuntza.....	2,5

%100

Barne sailkapen honetan puntu bakarra azpimarratuko nuke, hots, LHko eta DBHko ekoizpenak parekatu egin di-rela lehen aldiz. Orain arte aldea nabarmena izaten zen ur-tero-urtero lehen hezkuntzako liburuen alde.

Haur eta gazteentzako argitalpenak: 645 titulu


	1976-2005	2000-2006	2006	2007	2008
Haur/Gazte	24	22,7	23	25,5	26

Haur eta gazteentzako prestaturiko liburua lautik bat pasatxo da: %26. Eta, esan berri dugunez, irakaskuntzako liburua hirutik bat pasatxo da. Bi liburu mota horiek elkarrekin %61 osatzen dutelarik, bistakoak dira euskal liburugintza-ren indarguneak eta ahulguneak non dauden.

Merkatu egonkorra den seinale, liburu tipo honetan berrargitalpenak indar handia du, orokorrean baino 12 bat puntu altuagoa. Berrargitaratzen dena %42,5 da.

Indar handia du, are handiagoa, itzulpenak. Nobedadeetan %67,5 da itzultitako liburua; eta, hortaz, %32,5 bakarrik euskaraz sortu dena.


Haur eta gazte liburuaren eboluzio-lerroa



Urte gorabeheratsuak izan baditu ere, azken bietan mailarik gorenean dago liburu mota hau. Bi urte jarraian egin du gora, gainera.

Haur eta gazte liburuaren eboluzioaren indizea

Mende berrian zehar urte batean gora eta hurrengoan behera egin du. Iaz eta aurren, ordea, bietan jo du gora, modu nabarmenean, gainera. Joera aldaketa adierazten ote du horrek?



Giza eta gizarte zientziak: 447

	1976-2005	2000-2006	2006	2007	2008
Giza/Gizarte	19	19	21	18,5	18


Zein zabala den kontuan edukita, liburu eremu hau erdi hutsa dagoela esango nuke. Zer da, bada, bostehun liburu unibertsitateko alor gehienak eta bizitza arrunteko esparru ugari hornitu behar direnean?

Pisu gutxi du urteko liburugintzan, bestalde. %20 iritsi ezinik dabil urtea joan eta urtea etorri. Gutxi-gutxienez %30eko pisua beharko luke.


Ahuldadea, gainera, ez datza kopuruan bakarrik. Zirkulazio eskaseko liburua da, gutxitan berrargititzen dena. Izan ere, ia oso-osorik da liburu berri: 2008. urtean %93 da no-bedadea.

Giza eta gizarte liburuaren eboluzio-lerroa

Nahiz eta azken urte hauetan goraldia izan duen, ez dago berez dagokion edo egon beharko lukeen mailan. Hamaraldiko punturik garaiena, gainera, 2005ean izan zuen, eta ez aurten.



Giza eta gizarte liburuaren eboluzioaren indizea



Oso behetik datorren liburua da, eta maila nahiko apalean mantentzen dena. Areago: mailaren apalaz gain, eboluzio-leerro koherente baten gabezia sumatzen da. Susma daiteke ez dela merkatuaren premiari zuzenean erantzuteko pentsatua. Ez ote dago ekoizleen egitarauari (edo hain zuzen egitarau ezari) lotuegi? Jakin badakigu liburu honen argitaratzaileak sarritan administrazioa, edo elkarteak, edo taldeak direla.

Barne sailkapena

Ondoko taulan ikusten denez, kasurik gehienetan, guztietan ez esatearren, huskeria da gai bakoitzari dagokion liburu

kopurua, hutsaren hurrengoa. Hornituenak, historia nahiz biografiak, zientzia politikoak zein ekonomikoak, edertia eta linguistika dira, bakoitza 60-70 titulurekin.

Filosofia eta psikologia.....	4,-
Soziologia eta estatistika.....	7,-
Zientzia politikoak eta ekonomikoak.....	14,-
Zuzenbidea. Administrazioa.....	8,-
Gizarte segurantza. Seguruak.....	2,5
Linguistika eta filologia.....	14,-
Geografia eta bidaiak.....	4,-
Historia eta biografiak.....	17,-
Etnologia.....	4,5
Edertia.....	15,-
Hirigintza eta arkitektura.....	2,-
Besterik.....	8,-


%100

Helduen literatura: 302 titulu

	1976-2005	2000-2006	2006	2007	2008
Helduen literatura	16	14	15	12,5	12


Garai zaharretan gertatzen zenaren kontrara, aro modernoan literaturako liburuaren pisua ez da horren handia. Jai-tsiz doala ematen du, gainera. Aurten bertan, esate baterako, nahiz eta titulutan gora egin duen, bere pisua jaitsi egin da pitin bat: ekoizturiko liburuen %12 izan dira literaturakoak.

Literaturaren eboluzio-lerroa



Mende berria joera negatiboarekin abiatu zuen literaturak. Suspertu da hamarraldiaren erditik aurrera, eta bere punturik gorenean dago egun.

Literaturaren eboluzioaren indizea



XXI. mendeko lehen hamarraldian literaturak ematen duen irudia ez da baikorregia, urtetik urterako joera ikusita. Kopuru aldetik esan behar da, hala ere, hamarkadako batez bestekoa 252 delarik, egungo kopurua 302 dela.

Generoka

Eleberria. Ipuina.....	66, -
Olerkia.....	12, -
Antzerkia.....	3,5
Herri-literatura. Bertsoa.....	6, -
Saioa. Poligrafiak.....	3,5
Biografia. Kronika. Memoriak. Historia..	4,5
Besterik.....	4,5

%100

Urteroko hurrenkeran datoz generoak. Eta urterokoa da, baita ere, narratibaren gailentasuna. Ez dakit poztekoa ala kezkatzekoa den indartuz doala sumatzen den joera, alegia, narratibak geroz eta indar handiago duela.

Posizioak urtero berdintsu mantentzeak badu irakurketa positiboa ere, eta da literaturaren sistema egonkortua islatzen duela horrek, bakoitzak bereari eusten diolarik.

Gainerakoak


Gainerako liburu motetan ez gara luzatuko, dentsitate edo trinkotasun gutxi dutelako. Bi aipatuko ditugu espreski, zientzia zein teknika eta aisia. Aztertu gabe utziko ditugu beste zenbait, hala nola, erlijio liburua, orotarikoa.

Zientzia eta teknika: 110 titulu

	1976-2005	2000-2006	2006	2007	2008
Zientzia/Teknika	4,5	5,1	7,1	6	4,5

Ez da liburugintza osoan pisu handia duen liburu mota, nahiz eta azken hamarkadan indartu egin den, hamarkadaren bigarren aldirian batez ere. Azken lau urteotako titulutan mailarik baxuena aurtengoa da. Bere pisua ere jaitsi egin da: %4,5.

Zientzia eta teknikaren eboluzio-lerroa



2005ean jo zuen gailurra. Gailurra ala sabaia? Geroztik emeki-emeki beherantz egiteak ez du sabaiaren hipotesia in-

dartzen nire ustetan. Kontua da agian zientzia eta teknika berrien biktima bihurtu dela liburu mota hau. Esan nahi dut, eremu honetako materialak koherentzia osoz aiseago agertzen direla euskarri elektronikoetan paperezkoetan baino.

Barne sailkapena

Zientzia. Kultura.....	6,5
Zientzia zehatzak.....	7,-
Natur zientziak.....	29,-
Ingeniaritza. Teknologia. Industriak.....	27,5
Medikuntza.....	17,-
Ingurumena.....	6,5
Besterik.....	6,5
	%100

Azpisail gehienak mantendu egin diren bitartean, natur zientzietako liburuak izan du goranzko joeratxoa.

Aisia liburuak: 66 titulu

Musika.....	10
Argazkia.....	29
Jolasa. Jokoa. Kirola. Atletismoa.....	28
Ikuskizunak (antzerkia, zinema.....)	12
Kiosko literatura.....	21
	%100

Zientzia eta teknika liburuekin batera haxe da modernoa, modernorik bada. Lehenago ez bezala, azken hamarkadetan bere mailatxoa hartu zuen, eta badirudi bertan instalatu dela. Ez du gorako biderik nabarmen hartzen. Esango nuke gizartearen eboluzioa ez duela jarraitzen. Beste modu batera esanda, eremu honi dagozkion gaiak erruz kontsumitzen ditugu, erabiltzen ditugu, ekoizten ditugu, baina... erdaraz. Ez ote dugu erdaraz bizi musika, argazkia, zinema, mendizaletasuna, kirola? Kiosko eta liburu dendetara jo besterik ez dago. 66 titulu baino gehiago beharko genituzke, ezta, «mundu» horiek euskaraz bizi ahal izateko? Edo

bestela esanda: «mundu» horiek euskaraz biziko bagenu,
ekoizleek liburu gehiago argitaratuko lukete, ezta?

Alegia, produkzioan barik kontsumoan dagoela gakoa.¶

2008ko LIBURUAK: GAI SAILKAPENA

Sailak	Zenb. abs.	%
0. OROTARIKOAK	690	27,8
— Zientzia eta kulturaren oinarri orokorrak. Bibliografia. Katalogoak.	44	1,8
Bibliotekonomia. Entziklopediak. Kazetaritza. Museoak	645	26,-
— Haur eta gazteentzako argitalpenak		
1. FILOSOFIA	17	0,7
— Metafisika. Ontologia. Estetika. Filosofia sistemak. Psikologia. Logika. Etika	17	0,7
2. ERLIJOA. TEOLOGIA	28	1,1
— Berezko teologia. Biblia. Kristologia. Mariologia. Teologia moral. Liturgia.		
Pastoral teologia. Eliza. Kristauez besteko erlijioak	28	1,1
3. GIZARTE ZIENTZIAK	1.033	41,5
— Soziologia. Estatistika. Demografia. Politika. Ekonomia. Zuzenbidea.		
Herri administrazioa. Gizarte laguntza. Etnologia	161	6,5
— Hezkuntza. Irakaskuntza. Heziketa. Pedagogia	872	35,-
5. ZIENTZIA HUTSAK. ZIENTZIA ZEHATZAK ETA NATURALAK	44	1,9
— Matematikak. Astronomia. Fisika. Kimika. Geologia. Metereologia.		
Paleontologia. Biologia. Botanika. Zoologia	44	1,9
6. ZIENTZIA APLIKATUAK. MEDIKUNTZA. TEKNIKA	48	2,-
— Medikuntza. Ingeniaritza. Teknika. Nekazaritza. Basogintza. Zooteknia.		
Etxeko ekonomia. Industria. Zenbait industria eta lanbide. Eraikuntza.		
Sukaldaritza	48	2,-
7. EDERTIA. JOLASAK. KIROLAK	141	5,7
— Edertia. Estetika. Hirigintza. Arkitektura. Eskultura. Marrazketa.		
Margogintza. Argazkigintza. Musika	123	5,-
— Jostaldiak. Jolas eta jokoak. Kirolak	18	0,7
8. FILOLOGIA. LITERATURA	378	15,2
— Hizkuntzalaritza. Filologia	62	2,5
— Literatura. Literatur generoak	316	12,7
9. GEOGRAFIA. BIOGRAFIA. KONDAIRA	104	4,1
— Geografia	19	0,7
— Biografiak	52	2,1
— Kondaيرا	33	1,3
GUZTIRA	2.483	100

G A I A K



49 KOLDO GOROSTIAGA

ELENA BELOKI

Europar Batasunaren aukera euskal
gatazkan: trantsizio formulen bila

Europar Batasunaren aukera euskal gatazkan: trantsizio formulen bila

KOLDO GOROSTIAGA
ELENA BELOKI

Zuzenbidean doktorea eta eurodiputatu ohia
Zientzia Politikoetan lizentziaduna

Euskal Herriko lurralde gatazka definitu, eta Europako markoan barnebildu; eta Europar Batasunak beste gatazka batzuetan (Zipre eta Irlanda) bilatutako irtenbideak aztertu, horixe izan da orain arte, aurreko bi artikuluetan, eginiko bidea. Tenorea da, hortaz, irtenbide komunitarioek Euskal Herriko auzian jorra litzaketen formulak aztertzeke. Ez, noski, proposamen biribil eta erabatekorik zehazteko, baina bai, gutxienez, eta kontraesanak kontraesan, esplorazio bideari ekiteko. Esan nahi dugu horrekin, euskal gatazkaren konponbidean bestelako gako, tresna eta bideak aintzat hartuko ditugula, gatazkaren korapiloa askatzen lagun dezaketelakoan; azken batean, Euskal Herria europar herrialdea da eta.

Lurraldetasuna izan da lanaren ardatza; batetik, nazio-estatuaren arteko etengabeko gatazka iturri izan delako, eta bestetik, merkatuen globalizazioak eta integrazio prozesuek kolokan eta kontraesanez beterik ipini dutelako kontzeptua.

Kontraesanaren mugimendua interesatu zaigu. Batetik, lurraldetasunaren auzia; hots, lurraldetasunaren barne antolaketa estatu bakoitzari dagokio, eta gaurko mugek estatuaren subiranotasunaren esparru geografikoa zedarritzen

jarraitzen dute. Beraz, nolabaiteko mugiezintasun dimentsioa aipa genezake. Eta bestetik, integrazio prozesuak merkatuaren beharren arabera lurraldetasunaren aldakortasuna ahalbideratzen du. Ildo horretan, Saskia Sassenen gogoeta aipagarria da. Bere ustez, aldakortasunak nazio-estatu mugak gainditu eta muga demarkazio zein formazio sozial berrietara pasatu beharra dago.

Hausnarketarako, lurralde kontraesana berreskuratu nahi izan dugu, zeren lurraldetasuna finkoa al da? Soilik modu hermetiko gisa ulertzerik al dago? Nortasun juridikodun lurraldetasunari antolaketa bakarra al dagokio, nazio-estatu, hain zuzen ere? Edota nazio emantzipazioaren ibilbidean zehar, Europar Batasunak Euskal Herriari bere lurraldetasuna aitortuko liokeen formula trantsitoriorik bidera diezaioke? Europar Batasunak ipar berririk eskain diezaioke Euskal Herriko gatazkari?

Galdera horiek lagundu digute jarraian agertzen dugun analisiaren xedea zehazten; alegia, lurralde auzia gainditzen lagun dezaketen Europar Batasunaren erregio-politika komunitarioaren belaunaldi berriko lanabesei buruzko hausnarketa kritikoa.

Finean, Europar Batasunak euskal gatazkan aktore eta marko gisa jokatu beharko lukeen paperaz hausnarketa egin nahi izan dugu. Azken gogoetak dioenez, Frantzia eta Espainiaren arteko mugaren irautea Europar Batasunaren mugen desagerpenaren iruzurra da eta. Eta mugak dirauen bitartean, luze jo duen gatazka ere iraunen baitu.

Europar Batasuna: gatazkaren ebazpenaren parte ote?

Estatuak, nazioarteko komunitateko subjektu bakarrak?

Espainiar eta frantziar nazionalistek ez dute atsegin XX. mendea Historiako aldi emankor gisa oroitzea, europar es-

tatu berrien jaiotzari dagokionez. Eta zuzen dabilta. Aski da Kubaren independentzia garaian (1898) Europako kontinente barruan barne mugak zein ziren ikustea —une hartan piztu ziren katalanen eta euskaldunen estrategia «separatistak»— eta gaurko egunean muga horiek zein diren ikustea, franko-espainiar nazionalismo handia norainoko zorabioan erori den ohartzeko.

Hala da, bai. Versaillesko Tratatutik (1919) Montenegron oraintsuko independentziara arte, europar estatuen pizkunde edo berpizkundea izugarritzko *tsunami* eutsiezin gisa ikusten dute XIX. mendeko nazio-estatuak, batez ere «gerra hotzari» eusten zioten blokeak desagertu zirenez geroztik, 50 urtean zehar estaturik gabeko hainbat nazioen bultzadari eutsi ondoren.

Erromako Tratatutik aurrera, Bigarren Mundu Gerra ondorengo Europako mugen *statu quo*a defendatzen zutenek tresna gisa erabili dute EB —Alemania bien auzia salbuesiz—. Are gehiago: esan liteke belgikar estatuaren iraupena bera ere, hein handi batean, Europako Erkidegoaren fruitu dela; izan ere, Europak Brusela baitu hiriburu.

EBren diskurtso politikoan, estaturik gabeko nazioen gaia tabua izan da, eta hala izaten jarraitzen du; hori ondoriozta daiteke EBren etengabeko jarrera mesfidatititik eta lerroak ixteko daukan instintuzko erreflexutik, konstituzio proiektuan gertatu den bezala, edo —bai EBren barruan, bai kanpoan— herrien autodeterminazio eskubidearen auziari heltzeko saiorik txikiena ere azaltzen denean gertatzen den legez.

Komeni da gogoan izatea Europa erdialdeko eta ekialdeko hamabi estatu EBn sartu aurretik, hamar urte baino gehiagoko ahaleginak izan direla estatu horietako mugen segurtasuna eta jarraipena bermatuko dituen marko egonkor bat lortzeko. Izan ere, estatu horietan inperio otomandarra eta austrohungariarra desagertzean azaldu ziren gutxiengo nazional inportanteak biltzen dira, eta horiek egungo *statu quo*a ezegonkor lezakeen Pandoraren kutxa ireki lezaketete.

Aitortuta nahiz aitortu barik, EBk, Europako Kontseiluak mugaz gaineko eskualdeen alorrean egindako urrats zuhurren bideari jarraituz, bere ibilbide propioari ekin dio, bere estatu kideen barruan dauden barne mugen fenomenoaren gaineko formulazio malguago batek gutxiengo nazionalen eta estaturik gabeko nazioen presioa laxatze aldera. Ikuspegi hori agerian geratu zen, modu bereziki esplizituan, Zita Gurmai (PSE) eurodiputatu hungariarraren hitzetan, 2006ko uztailaren 4an, Estrasburgon:

Subsidiarotasunaren izenean, eskualdeek sarritan mugaz gaineko lankidetzak erabiltzen dute euren ohiko jardunean. Hori da Europar Batasunaren lorpenik handienetakoa bat. 2007an Errumania eta Bulgaria, eta geroago Kroazia, Europar Batasunean sartzearekin, mugaz gaineko lankidetzak horrek garrantzi handiagoa hartu zuen Hungariarentzat eta Hungaria ondoan, baina Hungariako mugetatik kanpo, bizi diren komunitate hungariarrentzat; hau da, Errumanian, Eslovakian eta beste auzo herrialde batzuetan bizi diren milioika hungariarrentzat... Baterako planifikazioak eta aplikazioak identitate zentzua indartzen dute, baita elkarrekin bizi izan diren herriekiko lankidetzak ere. Denbora luzean arazo etnikoak eta gutxiengoen arazoak sortu dituzten aurreiritziak uxatzen laguntzen dute. Mendetan zehar Erdialdeko Europako pertsona eta nazioak elkarrekin bizi izan diren eskualde historikoak berrezartzen ari dira.

Hori hala, EBren estrategia berriak nolako oihartzuna izatea espero dugu Euskal Herrian?

Euskal Herriaren gerorako «beste batzuek, kanpotik» zehazten ari diren egoera berriaren zantzuak aurki ditzakegu, esate baterako, azkenaldian EBn mugaz gaineko erlazioetan gertatzen ari dena, edo mugen arlo horretara bideratzen diren baliabideak, eta neurri horiek frantziar agintarien jarra berrian izaten ari diren oihartzuna, ondo gogoan hartuz, ordea, Ipar Euskal Herriak, orain arte, ez duela Euskal Herria diseinu berrian egoki sartzea ahalbidetuko lukeen oinarritzko erakunderik.¹

Iragartzen den ibilbide berriari ekiteko, EBk badu esperientzia multzo handi bat, hainbat hamarkadatan eta Euro-

pako Kontseiluaren barruan izandako akordioen markoan metatu dena. Gaur egunera arte, Frantziako Errepublika eta Espainiako Erreinua Europako Kontseilu horren estatu ki-deak izan dira, eta biak ere bereziki uzkur agertu izan dira aipatutako europar erakunde horrek sortutako tresnak erabiltzeko orduan.² Hala ere, Frantziako Errepublikak bere jarrerara aldatu berri du, eta bere egin du Europako Kontseiluko erakunde edo lurralde aginteen mugaz gaineko lankidetzari buruzko europar abiaburuko Ituna (Madril, 1980ko maiatzaren 21a), baita Protokolo gehigarriak eta Europako Tokiko Autonomiaren Gutuna ere (Estrasburgo, 1985eko urriaren 15a). Horrek estrategia berri bat adierazten edo iragartzen du *mugaz gaineko eskualdeei* dagokienez. Hain zuzen, fenomeno horixe iragarri zuen Alain Lamassoure eurodiputatuak —Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko erlazioen *factotuma*— 2005ean landutako *Lekuko kolektibitate frantsesen mugaz gaindiko harremanak* izenburuko txostenean. Txostena Europako Atzerri Arazoetako eta Europako Gaietarako Ministerioen eskariz egin zuen eta, bertan dauden hainbat eta hainbat irakaskizunen artean, badira nabarmentzea me-rezi duten gomendio batzuk:

Gidatze politikorako lekuko instantziak sortzea erraztea, eragile guztiak bilduz eta erabakitzeko ahalmen bat emanez; GECT Mugaz gaindiko Lankidetzarako Elkarteari buruzko arautegi komunitarioaren proposamena irmo sostengatzea eta sentsibilizazio kanpainak burutzea proiektuarekin oraindik bat egin ez duten gure auzokoen artean; proposamenaren zuzenketa proposatzea, erakunde publiko nazionaleri (unibertsitateak, esate baterako) mugaz gaindiko egitura hauetan era berean parte-hartzea ahalbidetzeko; Madrilgo Hitzarmeneko geroko 3. Protokoloaren eta GECTi buruzko geroko arautegi komunitarioaren arteko osagarritasuna ziurtatzea Bruselako eta Estrasburgoko negoziazioetan; Barruti Europarra edo GLCT bezalako mugaz gaindiko egiturak 2005eko abuztuaren 1eko 704 zenbakidun Lege Organikoak definitzen duen esperimentazioaren aplikazio eremuan sartzen direla baieztatzea; Barruti Europarra, GLCT edo GECT bezalako mugaz gaindiko egiturek kolektibitate ez-kideen aldetiko zerbitzu publikoaren ordezkari bati etekina zein baldintzatan atera

liezaioketen aztertzea; Administrazioaren Ikuskaritza Nagusiari eta Finantza Ikuskaritza Nagusiari mugaz gaindiko egituren finantzamendu iraunkorraren baldintzei buruzko ikerketa egiteko eskatzea, baita mugaz gaindiko jarduerak dituzten eskualdeentzako baliabide espezifiko, finantzario edo fiskalen egingarritasunari buruzko ikerketa egiteko ere; estatua-ren dokumentu estrategikoetan mugaz gaindiko faktorea sistematikoki integratzea, eta dimentsio hori ardatz estrategiko gisa kontuan izatea kontratuen naturatik ondorioztatuko den etorkizuneko politikan; mugaz gaindiko kudeaketa integratuak hurrengo *Interreg* programen ardatz estrategiko nagusi bihurtzea; xede hori gogoan, *Interreg* programen finantzamendua, geroan, egitura politiko edota juridiko binazional edo plurinazionalak abiaraziko dituzten proiektuentzat gordetzea; bi aldeen arteko bileretan mugaz gaindiko kontuak sistematikoki gogoratzea, gai zerrendak eragindako lekuko kolektibitateak edota mugaz gaindiko erakundeak lanen prestakuntzan, baita garapenean ere, elkartzuz...

Estrategia berriaren garrantzia norainokoa den ulertzeko, gogoan izan behar dugu zein egoeratik abiatzen garen une honetan.

'Euroeskualdetik' Lurralde Lankidetzako Europar Taldera

Merkatuak mundializatzeak mugen gaia berrikustea ekarri du, hain juxtu ere EB bere kanpo mugak zehazteko lan konplexuan murgildurik dagoenean, barne mugetako kontrolen zati handi bat kendu ondoren. Hala ere, mugak ez dira desagertu, eta ez dira desagertuko mugek estatuaren subiranotasunaren esparru geografikoa eta herri administrazioen jarduna zedarritzen jarraitzen duten bitartean. Ezin saihestuzko egiaztapen hori dela eta, mugaz gaineko fenomenoak ezin da egoeraren arabera kotzat edo bigarren mailakotzat hartu, kontua erabat egiturazkoa baita, eta luze irautekoa.

Madrilgo Tratatu delakoa, 1980ko maiatzaren 21ean Europako Kontseiluko kideek sinatzeko ireki zena, franko-espainiar mugaz gaineko erlazioetan aplikatu zitekeen 1984ko maiatzaren 14tik aurrera. Hala ere, 1995era arte, Baionako

Tratatu adostu zelarik, Euskal Herrian aplikatzeko birtualtasuna osoki landu gabe zegoen. Baionako Tratatuak ere ez zion bultzada kualitatiborik ekarri mugaz gaineko lankidetzari, erreferentziazko testu bion xedapenek ez zituzten-eta estatu biak inolako konpromisorik hartzera derrigortzen.

Europako Batzordeak, legezko markoa ez zela nahikoa jakinik, Madrilgo Tratatuarentzako protokolo gehigarri bat adostu zuen 1995eko azaroan. Protokolo gehigarri horren bidez, estatu kideetako lurralde kolektibitate eta eskualdeetara hedatu zen lurralde-arteko lankidetzarako mugaz gaineko erakundeak sortzeko eskubidea. Frantziar *Lurralde Kolektibitateen Arautegi Nagusia* delakoak aukera hori aitortu du L.1115-1 artikuluan, oraintsu egindako erreformaren ondoren:

Lurralde kolektibitateek eta taldekatutako lurralde kolektibitateek akordioak lot ditzakete, Frantziaren nazioarteko en-gaiamenduak errespetatuz, atzerriko agintari lokalekin lankidetzara edo garapenerako laguntza ekintzak garatzeko.³

Kontuan hartu beharra dago bai Madrilgo Tratatuak, bai lehen protokoloak, mugako auzo eskualdeei soilik eragiten ziela; hau da, geografikoki elkarren ondoan zeudenei. Horregatik, Europako Batzordeak bigarren protokolo bat proposatu zuen elkarren ondoan ez zeuden komunitateen mugaz gaineko lurralde-arteko lankidetzari esparru juridiko bat emate aldera. Protokolo hori Estrasburgon onartu zen 1998ko maiatzaren 5ean eta Frantziako Errepublikak harre-ra ona egin zion, zeren eta haren birtualtasuna mugaz gaineko erlazioetarako Madrilgo Tratatuak ezarritako metodologia bereganatzean baitzetzan —*mutatis mutandi* aplikatuz—, baina mugaldeko ondoko komunitateen mendean, hertsia-hertsian, jarri barik:

Oraingo Protokoloaren esanahiari dagokionez, bi edo hainbat alde kontratugiletako lurralde kolektibitateen edo agintarien artean harremanak ezartzeko helburua duen edozein akordio ulertzen da «lurraldeen arteko lankidetzara» gisa, auzokoak diren kolektibitateen mugaz gaindiko lankidetzara harremanak ez ezik, beste estatu batzuetako lurralde kolektibitateen edo agintarien akordioak lortzea ere barne.⁴

Mugaz gaineko lankidetzaz esparru horrek ikuspegi nahikoa egokia eskain dezake «muga neutro» baten alde bietako eguneroko arazoak konpontzeko; esaterako, kultura eta turismoa sustatzea, garraioak, jarduera ekonomikoa, arlo sozialak, osasuna, hezkuntza eta prestakuntza, hondakinen kudeaketa, naturaren babesa, hondamendi naturalak eta, hala behar denean, delinkuentziaren aurkako borroka, droga trafikoa eta iruzur antolatua, etab.

Baina Euskal Herria zatitzen duen muga ez da inoiz «neutroa» izan, eta hori ezin ageriagoa da, eta aho batez onartzen da.

«Muga neutrotzat» hartzen den horren barruan, denak edo ia denak dauka izaera erlatiboa, euroeskualdeen esparru juridikoa oso aldakorra izan baita. Hala, nortasun juridikorik gabeko interes komunitate bat izan daiteke (Elbe-Labe euroeskualdea), Europako interes talde bat (Transcanal), irabazi asmorik gabeko elkarte bat (Saar-Lor-Lux Rhin), nortasun juridikorik gabeko lan komunitate bat (Bayerischer Wald-Böhmerwald/Sumava), zuzenbide publikoko erakunde bat (Rhin-Waal), etab. Zenbait kasutan, maila berean dauden lurralde kolektibitateak izan daitezke (eskualdekoak eta probintziakoak); beste kasu batzuetan, heterogeneoagoak dira (Meuse-Rhin euroeskualdea, kasu), non belgikar eta holandar probintzien interesak hitzartzen diren Alemaniako komuna elkarte batekin eta Belgikako komunitate germanofonoarekin. Euroeskualdeen oinarri juridikoak, ondorioz, forma desberdinak hartu ditu, eta ia ezinezkoa bihurtu da euroeskualde hitzari ezaugarri zehatz batzuk lotzea. Horixe da Kyriacos Triantaphyllides zipretar europarlamentariak *Euroeskualdeen funtzioaz eskualde politikaren garapenean* izeneko txostenean azpimarratzen duena (A6-0311/2005).

Dena den, komeni da gogoan izatea euroeskualdeek eta mugaz gaindiko beste egitura forma batzuek ez dutela mugaz zeharreko administrazio mota berririk sortu, ez baita ukate botere politikorik, eta haien jarduera bertan dauden to-

kiko eta eskualdeko kolektibitateen eskumenetara mugatuta baitago. Gainera, ezin dugu datu esanguratsu hau ahaztu: euroeskualde bateko estatutua hainbat modutara interpretatu dela, are elkarren kontrakoak diren moduetara ere, kasuen arabera.

2005eko abenduan Kyriacosen txostenaren alde egin zuen Europako Parlamentuak eskatu zuen euroeskualdeek eta Lurralde Lankidetzako Europar Taldeen esparru juridiko barruko antzeko egiturek ahalmena izatea EBn mugaz gaineko erkidego programak landu, aplikatu eta kudeatzeko, zeren eta, printzipioz, euroeskualdea bere kabuz finantzatzen baita, baina, mugako eskualdeez ari garenez, horien programek onura atera liezaiokete *Interreg III* programari. Bruselako Batzordearen arabera, *Interregen* jarduerak argi eta garbi erakutsi dute mugaz gaineko ekimenak, hainbat estatu kideetako tokiko eta eskualdeko agintariek batera garatuak, inportanteak direla estatu kideontzako, baliabide ekonomiko gutxi erabiltzen eta balio erantsi nabarmena sortzen baitute.

Ikuspegi horretatik, 2006ko uztailean, Europako Parlamentuak onartu egin zuen Europar Batasunaren etorkizuneko eskualde politika, Egitura Funtsei eta Kohesio Funtzari buruzko bost txosteni aldeko botoa emanda. Jakina denez, Erkidegoaren funtsak atzeratuen dauden eta egiturazko zailtasunak dituzten eskualdeak bultzatzeko erabiltzen dira. Funtz banaketa berrian, zabalkundeko hamabi herrialdeak ditugu onuradun nagusiak.

Aipatutako bost txostenek honakoak zehazten dituzte, beste alderdi batzuen artean: helburuak, hautagarritasun irizpideak, trantsizio aldiak, erabilgarri dauden finantza baliabideak eta Bulgaria zein Errumania atxiki izanaren eragina. Ondorioz, EBk 308.041 milioi euro erabiliko ditu egiturazko zailtasunak dituzten eskualde eta estatu kideak gartzeko; hau da, Erkidegoaren aurrekontu osoaren %35,7.

Kohesio politikari buruzko araudien gaineko elkarrizketetan, bi urtean luzatu den lan handia egin dute hainbat era-

kundek. Bide batez, eztabaida eta negoziazio horiek ez ziren 2004an hasi, Batzordeak araudi orokorreko proiektua aurkeztu zuenean, baizik eta askoz ere lehenago, 2001ean, 2007-2013 aldirako Egitura Funtsen geroari buruzko lehen eztabaidak hasi zirenean.

Negoiazio horrek emandako fruitu urriak balio izan du erakusteko zer norabide hartuko zuketenez gauzek EBn baldin eta gehiengoak Europako Konstituzioa, erabakitzeko eskubidearekin, onartu izan balu; izan ere, eskubide hori hala aplikatzen da dagoeneko Europako Parlamentuan, zeren eta gaur egun europarlamentari gehienek —lehen hamabost estatutatu kideetatik datozenak— euren baldintzak inposatzen ahal dizkiete gainerako estatu kideei, izan ahulak, txikiak edo pobreak, eta jakina, baita sartu berriei ere.⁵

EBren eskualde politikari buruzko neurrien artean, bazezgoen tresna berri bat, Europako Mugaldeko Eskualdeen Elkartea, Europako mugaz gaineko lankidetzaren izaerari buruzko hainbat txostenetan, Europako Batzordearentzat eta Eskualdeen Batzordearentzat prestatu zuena. Lan horien gauzatze praktikoa, azkenik, Europako Parlamentuko (CE) 1082/2006 araudian eta Lurralde Lankidetzako Europar Elkarteari buruzko 2006ko uztailaren 5eko Kontseiluan jaso zen. Tresna berria, beraz, 2007-2013rako Egitura Funtsei buruzko lege sortan sartua dago eta mugaz gaineko *Interreg lankidetzaren programak* ordezkatzen du.

Horrela, eta lehenengo aldiz, EBk legezko esparru bat eskaini die mugaz gaineko, eskualde-arte eta nazioaz haraindiko lankidetzari. 2006ko uztailaren 5ean Estrasburgon onartutako txostena Jan Marian Olbrycht talde popularreko poloniar europarlamentariak egin zuen, eta Kontseiluak negoziatutako jarrera komuna jasotzen du. Txostenak adierazten du, Lurralde Lankidetzako Europar Taldeen bitartez, mugaz gaineko lankidetzarako oztupoak gainditu egin nahi direla.

Lurralde Lankidetzako Europar Taldeek Erkidegoak kofinantzatutako mugaz gaineko programak aplikatzeko jardun ahal izango dute, batez ere Egitura Funtsen kontu, eta na-

zioaz haraindiko eta eskualde-arteko lankidetzaren programen bidez. Araudiaren arabera, behin lankidetzaren helburuak eta printzipioak zehaztu ondoren, Europar Batasun barruan haien laguntzaz sortutako agintaritzak eta erakunde publikoek —hau da, eskualdeko, tokiko zein estatuko agintaritzek— araudian hitzarmen gisa izendatzen den akordio bat sinatu ahal izango dute. Horrek aukera emango die erakunde berria lurralde lankidetzako talde gisara erregistratzeko, Batasun osoan aitortuko den nortasun juridikoaz, behin estatu kide guztiei horren berri eman ostean.

Bitxia badirudi ere, pertsonalizatze hori halako kezka batekin hartu dute zenbait estatu kidek, eta estatu horiek euren erresalbuak azaldu nahi izan dituzte, nahiz eta azkenean proposatutako konponbideak Lurralde Lankidetzako Europar Taldeen funtzionamenduaren eta sorreraren gaineko kontrol osoa bermatuko dien estatu kideei. Ez alferrik —komeni da esatea—, Josep Borrell (PSE) eta Gerardo Galeote (PPE-DE) espainiar diputatuak Garapen Batzordeko eta Eskualde Garapeneko presidentek dira hurrenez hurren, eta Jose Manuel García-Margallo (PPE-DE) Ekonomia eta Moneta Gaietako Batzordeko lehen presidenteordea da. Negoziazio prozesuan izandako presentzia esanguratsu horren erakusle, horra hor Parlamentuaren osoko bilkuran Danuta Hübner austriar komisarioak esandako hitz sentituak, Lurralde Lankidetzako Europar Taldeei buruzko eztabaida bukatutakoan: «Plazer handia izan da Eskualde Garapeneko Batzordeko presidentea den Galeote jaunarekin lan egitea».

Lurralde Lankidetzako Europar Elkarteari buruzko Erregelamenduak aldaketa ugari izan ditu kohesio gaietako legegintza-jarduera sortari buruzko eztabaidetan. Hala ere, Erregelamenduan sartutako talde berriak interes komun eta espezifikoko arloen inguruan sor litezke; esaterako, Irlandaren inguruan —edo Euskal Herriaren inguruan—. Hala zelakoan zegoen Sinn Feingo Bairbre de Brun, zera baieztatu zuenean:

Lurralde lankidetzako mugaz gaineko elkarteari buruzko txostenak, Olbrycht jaunarenak, behin onartuta, sekulako

onura ekarriko die mugaldeko eskualdeei eta neurearen antzeko herrialde zatituei.

Aurreko mugaz gaineko lankidetzaren mekanismoen aldean, Lurralde Lankidetzako Europar Taldeek daukaten abantaila zera da: derrigorrean bete beharreko legeen aplikazioari dagokionez, aukera zabaldu egiten da, eta horrek handitu egiten du lankidetzaren erakundearen erantzukizun maila; gainera, aldi berean, baliabide komunei dagokionez, finantza garrantzitsuenaren eskakizuna ere sendotu egiten da. Aipatutako irlandar eurodiputatuaren iritziz, horrek guztiak ahalbidetu beharko luke

egitura funtsak Erkidegoan erroturik egotea eta Erkidegoak berak bideratzea funtsok, atal guztiak prozesuan erabat inplikaturik. Nire barrutian bertan —erantsi du— asko ikas dezakegu beste herrialde batzuek tokiko komunitateei eta tokiko egitura demokratikoei boterea nola ematen dieten aztertuta. Mugaz gaineko talde berrien aurrerapenaren jarraipena emango duenaren zain geratzen naiz. Irlandan, taldeko bereziki inportanteak izango dira mugaldeko konderrietan eta ipar-mendebaldeko eskualdean, non behartasun larriak, langabezia eta inbertsio fluxuen eskasia pairatzen baitira.

(Baita Iparraldean ere, zalantzarik ez —erantsiko genuke guk Euskal Herritik—).

Hala ere, azterketa labur honen ondoren ondoriozta daitezke auzirik garrantzitsuena, proposamen berriek jorratzen ez dutena, proposatutako tresnei buruzko filosofia aldaketak jarraitzen duela izaten. Izan ere, tresna horiek, gaur egun garapen sozial eta ekonomikorako daukaten funtzio laguntzaileak hasita, mugaz gaineko bizikidetzaren harmonikoa benetan sustatzera iritsi beharko bailukete, halako moldez non demokrazian bizitzeko benetako erreminta bihurtuko diren, muga zatitzaile guztien gainetik.

EBren erantzukizuna gatazkaren konponbidean

Duela gutxi belgikar Senatuan emandako hitzaldi batean (2007ko martxoaren 16an), Erromako Tratatuaren 50. urteu-

rranean, Jacques Delorsek gure ustez zauria ukitu zuen zera adierazi zuenean: «Il n'y a pas d'avenir sans mémoire» (Ez dago etorkizunik oroimenik gabe). Gainera, erantsi zuen esaldia ez dela aitzakia hutsa, egia historiko handia baizik.

Kontuan hartzen badugu gaur egungo EBko aitzindarien europar diskurtso federalistaren hasierako postulatuak eta gaur egun hark ematen duen irudi desitxuratuaren artean dagoen diskordantzia nabarmena —postulatu haiekin alde-eratzetik txikiena egiten saiatuz gero—, berehalaxe sortzen dira hamaika zalantza EBk egin nahi duenaz. Eta agerikoa da gobernuen arteko erlazioak lehenesten direla hiritarren interesen gaitetik. Hain zuzen, horrek azaltzen du, diskurtso eta publizitate kanpainen gaitetik, egun bizi dugun eta goraka doan *euro-eszeptizismo* orokorra.

Paraleloki, 'mugaz gaineko' gaiari dagokionez —estaturik gabeko nazioen ezin izendatuzko auziaz aritzeko eufemismo bat erabiliz—, EBk nazio-estatuaren nazionalismo handiaren aurrean makurtzen jarraitzen badu, ez dirudi Euskal Herriko eta antzeko gatazken konponbideari egin diezaiokkeen ekarpena positiboa izan daitekeenik. Aitzitik, EB oztopo erantsia izan daiteke berez larria eta konplexua den arazo batentzat, zeren eta mugaz gaineko europar eskualdeetarako iragartzen dituzten tresna berriak nazio-estatuaren nazionalismoaren esku gera litezke, eta tresna horiek estaturik gabeko mugaz gaineko nazioak suntsitzeko erabili, naziook halako heriotza gozo eutanasiako batera bultzatuz.

Aldiz, EBren jarrera (eta dituen eskumenak kontuan harturik, mugitzeko ahalmen mugatua duela ahanzi gabe) estatutuaren kideek lehenagotik praktikan jarritako neurriak errazteko balitz, egoera errealean edo potentzialki gatazkatuetan —hala nola gerra hotzaren amaieran EB ekialdeko herrialdeetan edo, oraintsuago, Irlandan— EBk «euskal gatazkaren» konponbideari egin diezaiokkeen ekarpena funtsezkoa izan liteke. Eta are gehiago, neurri berriak sortzeko gai balitz, estatuaren esku hartzea ekidinez, lurraldeen arteko zein

Europaren kohesioari begira Europar Batzordeak berriki aurkeztu duen txostenaren filosofiari jarraikiz.

Ildo horretan, kontuan hartzekoa da estatu kide gutzien printzipio komunen artean, gutxiengoak, gutxiengo horien kulturak eta bestelakotasunaren eskubidea («batasuna aniztasunean») daudela, baina ez dituzte denek betetzen. Badira, ordea, estatu kide batzuk kontu horretaz ondo baino hobeto arduratu direnak. Horra hor, Aland Uharteetako eta Laponiako estatusa. Bi kasuetan EBk errespetatzen ditu, 1995ean Suedia eta Finlandia EBn sartzeko hitzarmenaren sinadurari erantsitako protokoloen bitartez. Adibide ona ere eskaintzen dute komunitate daniar, frisiar eta alemaniarren estatusak alemaniar-daniar mugan eta Schleswig-Holstein-go *land* delakoak. Eta aipamen berezia merezi luke, duen gaurkotasunagatik, EBren diskurtsoak Montenegro eta Kosovoko kasuei buruz.

Azkenik, ezin ahantz dezakegu EBk bere esku duela egoera gatazkatsuak modu baketsuan birbideratzeko nazioarteko komunitateak baliatu izan duen bitartekorik boteretsuena: estaturik gabeko nazioen nortasuna nazioartean aitortzeko institutua progresiboki praktikan jartzea.

Azken ondorioak

EBko Konstituzio proiektua alde batera utzi ondoren, 2007ko ekaineko Berlingo gailurra egin eta gero, europar eraikuntza prozesua ez da gelditu. Esan izan da proiektua alde batera utzi izana aurrerapen erabakigarria izan daitekeela eraikuntza horretan, zegoen oztoporik handiena, *the constitutional deadlock*, Maull eta Overhausen hitzetan, gainditu egin baita.

Euskal Herriaren eraikuntza prozesurako ere, europar konstituzio proiektua alde batera utzi izana, askori paradokiko irudituko bazaio ere, aurrerapausoa izan daiteke, estaturik gabeko nazioen ukazioa, proiektu hartan argiro azaltzen zena, baztertuta geratu baita, Maastrichteko Tratatu-

ren hitzaurrean bertan estaturik gabeko nazioei aterik ixten ez bazitzaien ere: «Europako herriak gero eta batasun estua-goan lotu, erabakiak hiritarrendik ahalik eta hurbilen egonda har daitezten».

Europako Konstituzioan estaturik gabeko nazioak —Batasuneko estatu kideekin batera existitzen direnak— kanpoan uzteak jauzi historikoa ekarri zuen gaiaren planteamenduan: Konstituzioa «funtsezko arautzat eta ordena juridiko osoaren oinarritzat hartuta» —Espainiako Konstituzio Auzitegiaren doktrinaren arabera (AKE 31/03/1981)—, EB estatu nazionalismoen alde inplikatu zen behin betiko, eta horien gotorleku nagusi bilakatu zen.

Hala ere, Berlingo Europar Kontseiluaren ostean konstituzio kontzeptua alde batera utzi izanak ez du esan nahi edukiei uko egin zaienik, presidentetza Portugalen esku egon zeneko Gobernuen Arteko Biltzarrerako Agintaldi Proiektuan argi eta garbi azaltzen den bezala. Proiektuon Europar Konstituzioaren edukiak —baita Protokolo eta Adierazpen erantsietakoak ere— kontu handiz babesten dira Batasunaren tratatu aldarazle berrian. Are gehiago, berriazko aipamena egiten zaio⁶ estatu kideen nazio identitatearekiko errespetuari. Horra hor, geroari begira, Lisboako Itunak agintzen diguna.

Europako estaturik gabeko nazioen auziak, bada, EBk heltzeko zain daukan zereginetako bat izaten jarraitzen du eta, zalantza barik, auzirik premiazkoenetakoa da estatu kide batzuentzat.

Maiz nabarmendu izan dira Europako «identitate gatazkak» ebazteko Erkidegoaren politikak daukan gabeziak eta kontraesanak. Hala, esaterako, Balkanetako mendebaldean, EBk paper kontrajarriak jokatu ditu azken hamarkada hauetan, gogortasuna (konpromiso militarra inguruan) eta biguntasuna (EBn sartzeko promesa) uztartuz. Anbiguotasun hori azpimarratuta geratu da atzerriari eta segurtasunari buruzko politika bateratuko arduradunek egindako adiskidantzarako dei etengabeekin, zeren eta, aldi berean,

EBk ez die Balkanetako herriei inolako konfiantzarik eman, eta horrek gorantz doan eszeptizismoa baino ez du bultzatu herri horietan. Dena den, 1990eko hamarkada hasieran, EBren kezkarik premiazkoena inguru hartako gatazkak geraraztea bazen, gaur egungo uste sendoa da Balkanetako eremuan dauden arazoak Europar Batasunaren barruan baino ez direla luzerako konponduko.⁷

Gainerakoan, Irlandaren ereduak mendebaldeko estatuentzat etorkizunerako bide-erakusle behar luke izan gainerako gatazkak konpondu ahal izateko. Hala ere, gatazkan murgilduta dauden EBko estatu kideek iraganeko jarrerari eusten diete eta EBri berari ere zaila egingo zaio jarrera horiek defendatzea, behintzat orain arte egin duen bezala. Komeni da gogoratzea konstituzio Konbentzioa hasi aurreko *Déclaration de Laeken* delakoan, halako urduritasun bat nabari zela:

Askok uste dute Europar Batasunak gehiago arduratu behar lukeela beren kezka zehatzez, zenbait aferaren xehetasunetan eskua sartzeaz baino, hobe izango bailitzateke afera horiek, haien izaera kontuan hartuta, estatu kideen edo eskualdeen eskuetan utziko balitu. Zenbaitek beren nortasunarentzako mehatxua ere irizten diote jarrera horri.

Ezinegon hori «Europako eskualde konstituzionalei» egotzi zitzaizen, belgikar estatuko gailurra euren eskabideak plaza-ratzeko esparru egokia zela uste izan zutelako.

Dena dela, garbi geratu zen EBk ezin diola ezikusiarrena egin behin eta berriro azaltzen den kontu honi —baita gatazkan dauden europar eskualdeetatik kanpoko instantzietatik ere—. Hala, modu esplizituan, Alain Touraine frantziar soziologoak ere gaur egungo mundua ulertzeko ezin saihestuzkoa den kontu hori nabarmentzen du:

Berria dena hauxe da: nazio, etnia edo erlijio oinarrietan definitutako taldeek, lehen arlo pribatuan baizik existitzen ez zirenek, existentzia publiko agerikoa lortu dutela orain, halako gizarte nazionaleko partaidea izatea zalantzan jartzearaino.

Nolanahi ere, EBk duen arriskua, oraintxe bertan, ez dator hainbeste bere barruko errealitate saihestezinon integrazioa

bideratzeko egin beharko liratekeen erakunde aldatetatik, gai horri dagokionez, Europako Kontseiluaren bide orriari jarraituz azkenaldian izaten ari den joera dela eta. Aitzitik, kezkarriena da estatu kide batzuek euren diskurtso nazionalak egokitzeko agertzen duten ezintasun kronikoa. Izan ere, gatazkarik korapilatsuenak modu berri eta eraginkorren konpontzeko Europan bertan osatzen ari den adibide-katea —gertatu berrienak, Irlanda, Montenegro eta Kosovo— aurrean izanik, estatu horiek ez dira gai euren diskurtsoa moldatzeko.

Horregatik, eta baieztatu ohi denaren kontra, estaturik gabeko nazioen auzia, hala nola Euskal Herrikoa —edo Kataluniakoa—, ez da Frantziako Errepublikari «albotik» eragiten dion eta zeharka EB kezkatzen duen arazo «espainiarra».

Britainiar saiogile baten oraintsuko gogoetabidea parafraseatuz (Vivien A. Schmidt), aipagarria da oraindik bizirik dauden «kereila nazionalitarioen» eragina onartzea zailagoa dela estatu batasunzale batean (Frantzia) nazio anitzeko estatu batean baino (Belgika). Horixe ondoriozta daiteke antzinako Greziako kultura politeistan erromatar jainkoak integratu zireneko irudi historikoan, zeren eta, erabateko monoteismo batetik abiatzen garenean (Nazioa —Espainia edo Frantzia—), beste ezein jainkotasun sartzeak halabeharrez ekartzen dio, biraotzat jotzeaz gain, eraso zuzen bat erlijioaren funtsari berari (estatuari). Horiek hala, EB eta estatu kideak ikusmolde horretan tematzen badira, gatazkak ere bizirik egongo dira halabeharrez.

Topikoa da onartzea erakunde politiko guztien egiteko nagusia —beraz, baita EBkoena ere— gatazkak bideratzea dela. Erakundeak, dauzkaten gutxiegitasunak direla-eta (oportunismoa, alderdikeria edo inkoherentzia), helburu nagusi hori lortzeko gai ez badira, barne antolamenduak berak diskurtsoan eta *modus operandi*an estrategia aldatzera bultzatu behar ditu, bestela gatazkaren parte nagusi bilakatzen dira eta.

EB, Hagako Programaren bidez (2004), gehieneko segurtasun estrategia azken muturrera eramanda, azken ondorioe-

taraino eta zuzenean inplikatu da euskal gatazkan, baina soil-soilik errepresioaren bidetik, Chris Pattenek (EBko Kanpo Harremanetarako aurreko komisarioa, 1999-2004) gatazkarik latzeneri konponbidea topatzeko ahaleginean erregularki ematen zituen aholku zuhurrei ezikusiarena eginez.⁸

Kontu horri dagokionez, irlandar esperientzia irakaskizun iturri oparoa dugu: Ulsterreko erakunde sistemak, uhartera zatitu zenetik, automatikoki ahalbidetzen zuen komunitate unionista-protestantearen nagusitasuna, errepublikar-katolikoak baztertuta. Horrek beste bitarteko batzuk erabiltzera bultzatu zuen jende asko, eta komunitate bien arteko liskar odoltsua etorri zen. Argi eta garbi baieztatu daiteke egoera jasanezin harekin hausteko lehen zantzuak Londresko eta Dublingo gobernuek Irlandaren lurraldetasuna aitortzetik etorri zirela. Ez zen lan erraza izan, baina gaur egun inork ere ez du zalantzan jartzen bake prozesuari heltzeko *sine qua non* baldintza izan zela.

Gaur egunean, Irlandako errealitatea, zailtasunak zailtasun, errotik eta positiboki bestelakoa da. Danuta Hübner komisarioak dioenez, berak EBren izenean bultzatzen duen *Task-force* delakoa «inportantea da; ez bakarrik Ipar Irlandarako, baita Europako beste eskualde batzuetarako ere, hemen egindakoa balia dezakete eta» (Belfasten, 2007ko ekainaren 8an eginiko adierazpenak). Hori guztia kontuan hartuta, iradokizun iturri oparoa izan daiteke Batasunaren etorkizuneko jardunerako, hor dago-eta printzipio demokratikoak bermatzeko jotzen duen papera, Tratatuak Erreformatzeko Proiektuak aitortzen dion paperaren esparruan, «estatu kideek euren helburu komunak lortzeko ematen dizkioten eskumenen» arabera.

Eurofilorik sutsuenek agerian jarri ohi duten honako egiaztapenetatik abiatzen gara: EBko estatu kideen diskurtso nazionalak ez datoz bat europar erakundeen baitan estatu beroriek eta estatu horietako gobernuek daramaten jardunarekin. Izan ere, estatu horiek osatzen dituzte europar erakundeak, eta, hortaz, estrategia politikoa erabakitzen dute. Eta hala iza-

nik ere, ikusten da badagoela desoreka iraunkor eta, batzuetan, sakon bat (*décalage*), estatu bakoitzeko hiritarrei predikatu edo jakinarazten zaienaren eta EBko erakundeetan erabiltzen den diskurtsoaren artean. Horren erakusle gisa, hara hor espainiar eta frantziar ordezkarien zereginaren azterketa Balkanetako «identitate gatazken» tratamenduari dagokionez, non muga, identitate, subiranotasun, independentzia eta antzeko kontzeptuak, haien tabu nazional propioak sagaratzeko eztabaidaezinak eta ukiezinak direnak, goitik behera malgutzen, koiuntural bihurtzen eta birformulatzeko modukoak baitira, nazio anitzeko beste estatu batzuek mintzatuz gero.

EBk ibilbide berri bati ekin dio erkide barruko eta kanpoko mugaldeko eskualdeen tratamenduan, nahiz eta hartutako neurri berrien eragina ikusteko dagoen oraindik. Erkide barruko mugei dagokienez, gorago aipatu ditugun pausoei itxaropen neurritsua izateko bide ematen dute, zeren eta gaur arte gure artean erabili izan diren formulak (Pirinioetako Lan Komunitatea, Euskadi-Akitania Lankidetzako Hitzarmenak, Eurohiria, etab.), auzia behin betiko konpontzetik urrun, ahuntzaren gauerdiko eztabaida baino ez dira.

Horregatik, formula berrien izaera herabea gorabehera (Euroeskualdea, Lurralde Lankidetzako Europar Elkarte —biak ere nazio-estatuaren erresalbu eta zuhertasun jagolez beterik—), uste izatekoa da formula horiekin EBk tresna batzuk (*mugaz gaindiko programen belaunaldi berriak*, Hübnerren hitzetan) eduki nahi izan dituela, estatu kideen konstituzio esparruari eragin barik, barne mugak kentzeak dakartzan oztupoak progresiboki gainditu ahal izateko. Hübner komisarioaren arabera,

Lurralde Lankidetzako Europar Taldeek honako printzipio hau dute euskarri: muga bat egoteagatik izan litekeen edozein bereizkeria prebenitzea. Alde bietako agintarien arteko mugaz gaineko lankidetzak herrialde bereko agintarien artekoa bezain posiblea izan behar du.⁹

Helburu hori, zalantzarik gabe, goraipagarria litzateke EBko barne muga guztiak «neutroak» balira. Baina hori ez da

hala. Horrenbestez, badirudi Parisko eta Madrilgo gobernuak euren estrategia separatistan euskaldunen —eta katalanen— aurrean amore emateko gertu ez dauden bitartean, franko-espainiar mugak EBko barne mugen ustezko desagerpena goitik behera gezurtatzen jarraituko duela.

Har ote liteke Euskal Herria nazio-estatuaren separatismoa gainditzeko esparru-eredutzat?¶

1. Bruselako Batzordearen arabera, EBko eskualdeetatik kanpo eta berauen parte-hartzerik gabe hartutako erabakiek ondorio ezin txarragoak ekar ditzakete. Izan ere, EBren kohesio politika, hasiera-hasieratik, europar integrazioak eta mundializazioak ekar litzakeen ondorio kaltegarriei erantzuteko bide gisara sortu baitzen. EBren kohesio politikari buruzko informazioa eta publizitatea bete beharrekoak dira estatu kide guztientzat, kohesioa estatuaren arteko elkartasunaren sinonimotzat jotzen baita. Politika hori egiteko, eskualdeak funtsezko erreferentziatzat hartzen dira, hiritarren bizimoduaren eta lanaren gunea baitira eta, ildo horretan, berrikuntzaren eta lehiaren gune nagusiak. Batzordeak betidanik uste izan du kohesio politika horrek egoki funtzionatzeko tokiko esperientzia kontuan hartu behar dela eta arazoak eskualde mailan identifikatu behar direla, proposatutako konponbideak eta horien aplikazioa etekinak jasoko dituztenen esku gera daitezten. Batzordeak interesgarri ikusten du hainbat jatorritako Eskualde elkarteak eratzea, eta taldeok, euren programak landu baino lehen, behar diren ideia guztiak eztabaidatzen ahalegintzea. Gainera, Batzordea prest egongo litzateke Bruselan anfitrioi gisa jarduteko, eskualde taldeei Erkidegoan azken hogeitun urteotan bildutako esperientzia ondarea eskaini ahal izateko.
2. 1998an «Mugaz gaindiko proiektuak europar eraikuntzan» gaiaren inguruan urtebete lehenago DATAREN (lurralde antolamendurako ministerioarteko erakundea) ekimenez sortutako MOT (*Mugaz gaindiko Operazio-Misioa*) delakoa frantziar hexagonoan antolatutako mugaz gaineko proiektuen sare koordinatzaile gisan, eta bertako zuzendaritza organoan Lille, Alsazia, Côte d'Azur eta Baiona-Donostia Eurohiria sartzen ziren. MOTek —gobernuaren kontrolpean «mugaz gaindiko politika nazionala» zehazten saiatzeko— mugaz gaineko gaiei buruzko hainbat informazio trukaketa, mintzaldi eta mintegi egin du, eta jasotako emaitzak oso desberdinak izan dira, zein lurraldez ari garen.

Iparraldean, 1993an mugaren alde bietan hasitako baterako estrategia berriak zer emaitza ekarriko duen zain gaude oraindik. Hamar urtean izandako bilera, eztabaida, argitalpen eta amaigabeko gastuen ondoren, estrategia horren balantzea, Olivier Beaupre-Gateau-ren iritziz (2006),

honako hau da: «Egungo egoera, Barbara Loyer andreak, euskal auziaz aditua eta Paris X Unibertsitateko Geopolitika irakasleak 2004ko udan izandako elkarrizketa batean baieztatu zigunez, maskor hutsa baizik ez da, Eurohiriak ez baitu abian jartzeko ezein botererik. Horrek zera esan nahi du: Liburu Zuriaren proiektu guztiak, adibidez, ezin izango direla errealitate bihurtu, baldin eta Eurohiriko partaideek agintari eskudunak proiektuaren interesaz konbentzitzen ez badituzte. Beraz, alde handia dago Eurohiriko aktoreek nahi eta aurkezten duten errealitatearen eta lekuan bertan agertzen den errealitatearen artean».

3. 2007ko otsailaren 2ko 2007-147 Legea, lurralde kolektibitateen eta haiek batzen dituzten elkarleen kanpo ekintzari buruzkoa.
4. 2007ko martxoaren 5eko 2007-298 Legea, europar esparru-hitzarmeneko 2. protokoloa onartzea baimentzeko; protokolo hori lurralde kolektibitate edo agintarien mugaz gaindiko lankidetzari buruzkoa da, lurraldeen arteko lankidetzaren arlokoa.
5. Kontuan hartu beharra dago EBren lurraldea %35 handitu litekeela eta biztanleria %27 igo, herrialde atxikigaiak (Turkia eta Kroazia) eta mendebaldeko Balkanetakoak EBn sartuko balira. Hala ere, EBko barne produktu gordina %4 bakarrik handituko litzateke eta biztanle bakoitzeko errenda %18 murriztu. Beharko liratekeen 150.000 euro gehigarrietatik, Turkiak %63 bereganatuko litzuzke, Kroaziari %7 baino ez litzaiokie egokituko eta mendebaldeko Balkanetako beste herrialdeei (Albania, Bosnia eta Herze-govina, Montenegro, Serbia —Kosovo barne—), berriz, %9,2 guztira (2007ko apirilaren 24an Europako Parlamentuak onartutako txostena, etorkizuneko zabalkundeek kohesio funtsetan izango duten eraginari buruzkoa). Europako Parlamentuaren iritziz, bai eskualde lehia, bai lurralde lankidetzak, eskualde ekonomia europartzeko laguntzan eta European garrantzitsuak diren azpiegituren laguntzan bildu beharko lirateke, eta etorkizunean Europako Gizarte Funtza erabili beharko litzateke, baita ere, tresna horizontal gisa, globalizazioaren erronka sozialak direla-eta, eta aldaketa demografikoen ondorioak direla-eta, eskualdeei laguntzeko. Komeni da gogoratzea Bruselan 2004ko abenduaren 16 eta 17an izandako Europako Kontseiluak zera adierazi zuela: «Oraindik hasteko dauden atxikitze negoziazioak —garrantzi handiko ondorio finantzarioak ekar litzaketan herrialde atxikigaiekin— soilik gauzatu ahal izango dira behin 2014. urtetik aurrerako Finantza Esparrua ezarri ostean, egin beharreko finantza erreformekin batera». Batzordeko presidentek, berriz, zera azaldu zuen Europako Parlamentuan: «Erakundeen auzia etorkizuneko edozein zabalkunde egin aurretik erabaki beharko litzateke», eta adierazi zuen erabaki hori, 2006ko ekainaren 15 eta 16an izandako Europako Kontseiluan zehaztuta-koaren arabera, 2008ko bukaera baino lehenago har litekeela. Halaber, aitortu zuen Batasunak zailtasun batzuk gainditu behar dituela gaur egun, hego-ekialdeko Europako herrialdeekin hartutako konpromisoak betetzeko, zeren eta egungo erakunde, finantza eta kudeaketa politikoko egitura ez baita egokia zabalkunde berrietarako.

2007-2013 aldirako Funts berriak, aurreko aldiaren aldean, kohesioari eskainitako baliabideak gehitzea dakar. Funts hori 61.558 milioi eurokoa izango da; 2000-2006 aldian, berriz, 28.212 eurokoa izan zen. Hala ere, aipatutako Akordioak Egitura Funttsak murriztea dakar —2000-2006 aldiko Nazio Errenta Gordinaren %0,41etik, 2007-2013 aldirako %0,37ra pasatuko da—, nahiz eta kohesio beharra handiagoa izan zabalkundearen ondoren. Kohesio Funtsetik nazio errentan batez bestekoaren %90etik behera dabilzan herrialdeek soilik atera ahal izango dute etekinik. 2004ra arte, Espainiako Erreinua, Irlanda, Grezia eta Portugal zeuden hor. Irlandak muga hori gainditua zuen zabalkundearen aurretik. Beste hiru herrialdeak artean 15 estatu kide zaharren Nazio Errenta Gordinaren %90etik behera zebiltzan, baina zabalkundean beste 12 herrialde atxiki zirenean —pobreagoak eta, beraz, Erkidegoaren batez bestekoa baino Nazio Errenta Gordin txikiagoarekin—, aipatutako hirurek %90eko portzentajea gainditu zuten eta, hori hala, galdu egin zuten aipatutako funtsaren bitartez finantzatzeko eskubidea. Horri «efektu estatistikoa» deitu zaio. Efektu estatistikoa konpentsatu eta aitortze aldera, Espainiako Erreinuak 3.250 milioi euro jasoko du kohesio funtsetik 2007-2013 aldian (12.357 milioi 2000-2006 aldian). Espainiako Erreinua, 2000-2006 aldian EBtik 62.400 milioiko laguntza globala jasotzetik, 31.536 milioi jasotzera pasatu da 2007-2013 aldian.

6. EBko Itunari egindako aldaketak. 4. artikulua ordezkapena Batasunaren eta estatu kideen arteko erlazioei buruz: «2. Europar Batasunak estatu kideen berdintasuna errespetatzen du itunen aurrean, baita haien nor-tasun nazionala ere, beren oinarritzko egitura politiko eta konstituzionalari datzekiena, autonomia lokalari eta erregionalari dagokiena barne».
7. «Kosovo sakon-sakoneko arazo europarra da», «Haren egonkortasunak zuzenean eragiten die Balkanetako eta EBko egonkortasunari», «Mendebaldeko Balkanen etorkizuna EBren baitan datza». Olli Rehn Europako komisarioak Europako Parlamentuan esandako hitzak, 2007ko uztailaren 11n.
8. Hona Chris Pattenek eginiko adierazpen batzuk.
 - «Gatazkaren sintomei soilik heldu beharrean, haien jatorrizko arrazoiak identifikatu eta tratatzeko metodoak garatu behar dira», in *Role of Human Rights and Democratisation in Conflict Prevention and Resolution*. Brusela, 2001eko maiatzaren 28a eta 29a.
 - «Denbora funtsezkoa da gatazkak prebenitzeko eta krisiak kudeatzeko», in *European Security & Defence Policy*. Europar Legebiltzarra, Estrasburgo, 1999ko azaroaren 17a.
 - «Gutziz segurua da subiranotasun nazionalak ez digula ukatzen beste herrialde batzuetako giza eskubideen egoera eskasari buruz hitz egiteko eskubidea —eta horri eragiten saiatzeko—... Giza eskubideak unibertsalak dira. Ez du esan nahi horrek, bada, gure ikuspegiak berdina izan beharko lukeela, harremanak edozein herrialderekin ditugula ere?», in *Human Rights Discussion Forum. Plenary Session Brussels*, Charlemagne Building, 1999ko azaroaren 30a.

- «Herrialde bateko egonkortasunak ahots disidente guztiak zapaltzea eta gizarte zibila itotzea justifikatzen al du?», in 'La Démocratie ne se gagne pas à la pointe du fusil'. *Nouvel Observateur*, 2003-04-10.
9. Danuta Hübner komisarioaren hitzak Annual Conference of Association of European Border Regions delakoan (Iruñea, 2006ko azaroaren 24a). Gainera, komentario esanguratsua egin zuen estaturik gabeko nazioen ikuspuntutik: «Jakinarazi berri didate Portugal Iparralde eta Galizia era horretako lehen akordioa sinatzeko prest daudela. Ongietorri beroena ematen diot ekimen horri!».

Bibliografia

Halako gaiak aipamen askoz hornitzeak irakurketa astun eta nekagarri egitea dakarrela jakinik, Europari buruzko hiru artikulua hauetan ahalik eta aipamen gutxien sartzen ahalegindu gara. Horrek, ordea, noizbait beste egile batzuei harturiko ideiak ez aitortzea ekarri du. Zuzen jokatzeko asmoz, hona hiru artikuluetan erabilitako oinarritzko aipamen bibliografikoak.

1. «Euskal Herriko lurralde gatazka luzea. Europako aukera»

- Arana-Goiri'tar, Sabin (1980): *Obras completas de*. Donostia: Sendoa.
- Beltza (1974): *El nacionalismo vasco (de 1876 a 1937)*. Hendaia: Mugalde.
- Corcuera, Javier (1979): *Orígenes, ideología y organización del nacionalismo vasco (1876-1904)*. Madril: Siglo XXI.
- Duguit, Léon (1901): *L'Etat, Le Droit objectif et la Loi positive*. Paris.
- Elorza, Antonio (1978): *Ideologías del nacionalismo vasco 1876-1937 (de los «euskaros» a Jagi Jagi)*. Donostia: L. Haranburu.
- Fernández Pardo, Francisco (1990): *La independencia vasca. La disputa sobre los fueros*. Madril: Nerea.
- Fusi, Juan Pablo (1984): *El País Vasco. Pluralismo y nacionalidad*. Madril: Alianza.
- Gottmann, Jean (1973): *The Significance of Territory*. Charlottesville: The University Press of Virginia.
- Jacob, James E. (1994): *Hills of Conflict: Basque Nationalism in France*. Reno: Univ. of Nevada Press.
- Mann, Michael (1986): *The Sources of Social Power*. Cambridge: Cambridge Univ. Press.
- Morin, Edgar (1994): *Pensar Europa*. Bartzelona: Gedisa.
- Pablo, Santiago de; Mees, Ludger (2005): *El péndulo patriótico*. Bartzelona: Crítica.
- Raffestin, Claude (1980): *Pour une géographie de pouvoir*. Paris: Librairies Techniques.
- Sack, Robert David (1986): *Human Territoriality. Its Theory and History*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Sarrailh de Ihartza, Fernando [Federiko Krutwig] (1979): *La nueva Vasconia*. Donostia: Ed. Vascas.

- Sassen, Saskia (2003): *Contra geografías de la globalización. Género y ciudadanía en los circuitos transfronterizos*. Madril: Traficante de sueños.
- Sorauren, Mikel (1999): *Historia de Navarra, el Estado Vasco*. Iruñea: Pamiela.
- Tilly, Charles (1992): *Coerción, capital y los Estados europeos, 990-1990*. Madril: Alianza.
- Urzainqui, Tomás (1998): *La Navarra marítima*. Iruñea: Pamiela.

2. «Euskal Herriko lurralde gatazka. Europar aukera zehazteko bidean»

- Agnew, John (2005): *Una revisión de la política mundial*. Madril: Trama.
- Buchanan, Allen (1998): 'Democracy and Secession', in Margaret Moore (zuz.): *National Self-Determination and Secession*. Oxford: Oxford University Press, 14-33 orr.
- Coppieters, Bruno (2004): 'The Georgian-Abkhaz Conflict', in Bruno Coppieters; Michael Emerson; Nathalie Tocci (zuz.): *Europeanization and Conflict Resolution: Case Studies from the Divided Periphery*. Gante: Academia.
- Filibi, Igor (2005): 'Moldeando la paz estructural. Proceso de integración europeo y resolución de conflictos', in Felipe González; Noé Cornago (zuz.): *Working Papers Munduan. Cooperación descentralizada*. Bilbo.
- Hayward, Katy (2004): 'The Region between State and Nation: British and Irish Conceptions of Northern Ireland', in Angela K. Bourne (zuz.): *The EU and Territorial Politics within Member States: Conflict or Co-operation?* Leiden; Boston: Brill, 127-151 orr.
- Hübner, Danuta (2006): *Annual Conference of Association of European Border Regions*. Iruñea.
- Kahler, Miles; Walter, Barbara (zuz.) (2006): *Territoriality and Conflict in an Era of Globalization*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Kohen, Marcelo (zuz.) (2006): *Secession. International Law Perspectives*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Letamendia, Francisco (2007): 'Territorio y autodeterminación: su reconocimiento por la Comunidad Internacional', in *Working Papers. Seminario Internacional. «Bakerako trantsizio ibilbidea»*. Donostia: HEIS Center. Iraila, 21-22.
- Mendizabal, Antxon (1998): *La globalización: perspectivas desde Euskal Herria*. Hondarribia: Hiru.
- Morata, Francesc (1998): *La Unión Europea: Actores, Procesos y Políticas*. Bartzelona: Ariel.
- Pentassuglia, Gaetano (2002): *Minorities in International Law*. Estrasburgo: Council of Europe Publishing.
- Sicilia Oña, Beatriz (2006): *Derechos fundamentales y Constitución Europea*. Gasteiz: Col. Derechos Humanos «P. Francisco de Vitoria». Ararteko.
- Slaughter, Anne-Marie (1988): 'Pushing the Limits of the Liberal Peace', in D. Wippman (zuz.): *International Law and Ethnic Conflict*. Londres: Cornell University Press, 128-144 orr.

- Stavenhagen, Rodolfo (1995): 'Cultural Rights and Universal Human Rights', in A. Eide; C. Krause; A. Rosas (zuz.): *Economic, Social and Cultural Rights: A Textbook*. Dordrecht: Martinus Nijhoff Publishers, 63-77 orr.
- Triantaphyllides, Kyriacos (2004): *Informe sobre la función de las «eurorregiones» en el desarrollo de la política regional*, (2004/2257(INI)), Parlamento Europeo, Comisión de Desarrollo Regional.
- Wiener, Antje; Diez, Thomas (2004): *European Integration Theory*. Oxford: Oxford University Press.
3. «Europar Batasunaren aukera euskal gatazkan: trantsizio formulen bila»
- Beaupre-Gateau, Olivier (2006): *La frontière franco-espagnole au pays basque. Etude des fonctions de la frontière sur le territoire de l'eurocité bayonne-sant-sebastián*.
- Fernández, Tomás Ramón (1976): 'Las autonomías regionales. Tendencias europeas actuales'. *Civitas. Revista española de derecho administrativo* 10, 431-449.
- Hauriou, André (1972): *Institutions politiques et droit constitutionnel*. Paris: Montchrestien.
- Letamendia, Francisco (koord.) (2006): *Acción colectiva hegoalde-iparralde*. Madril: Fundamentos.
- Martín Retortillo, Sebastián (koord.) (1973): *Descentralización administrativa y organización política*. Madril: Alfaguara.
- Maull, Hanns; Overhaus, Marco (2007): *Time to Move on - The European Union after the German Council Presidency*. Deutsche-Aussenpolitik. 2007ko uztairearen 26a.
- Schmidt, Vivien (2006): *Democracy in Europe. The EU and National Politics*. Oxford: Oxford University Press.
- Timbal, Pierre-Clément; Castaldo, André (1993): *Histoire des institutions publiques et des faits sociaux*. Paris: Dalloz.
- Touraine, Alain (2005): *Un nouveau paradigme pour comprendre le monde d'aujourd'hui*. Paris: Fayard.
- Tsoukalis, Loukas (2004): *¿Qué Europa queremos? Los retos políticos y económicos de la nueva Unión Europea*. Barcelona: Paidós.
- Zenbait egile (2004): *Redes transfronterizas intervascas*. Leioa: EHU.
- Zenbait egile (2005): *La Europa ¿de quién?* Tafalla: Txalaparta.



ARTEA 77

Zenbakien amildegia
Ezbeharraren irudikapena
Eztabaida, etika, miseria
Desastrearen ostean, ospakizuna

HAIZEA BARCENILLA

TEKNOZIENTZIA 83

Iznogoud • Nabigatzen
Zientzia txarra • Energia jasagarriak

INAKI IRAZABALBEITIA

LITERATURA 90

The Road • Bookcrossing Bilbon
Literatura metroan • Liburu dendan, bakarrik
Zergatik irakurri?

GOIZALDE LANDABASO

SOZIOLINGUISTIKA 97

Prestakuntza eta informazio soziolinguistikoa
Interneteko eskaintza
Liburuak eta liburutegiak
Urte hasierako berriak

LIONEL JOLY

GLOKALIA 103

Porto Alegren, malenkoniatsu
Arrakastaz hil?
Poliki-poliki bizitzen da hobeki

JOSU LARRINAGA

Zenbakien amildegia

Lerro hauek idaztera esertzen naizen honetan, Haitiko lurrikarak eragindako hildakoak zenbat diren ez da oraindik zehatza. Gobernuak Port-au-Price eta inguruetan 150.000 bat lurperatu dituztela adierazi du; asko izan zitezkeen oraindik hondakinen artean desagertuak, ordea. Gainera, horrenbeste dira zaurituak, ezen hurrengo egunetan, hila-beteetan kasik, zenbakiak asko igo daitezkeen. Epe ertainera 200.000 hildako baino gehiago kontatzea ez dirudi puzte handia.

Beti izan dut kantitate harrigarriak irudikatzeke arazo larria. Eskolan unibertsoari buruz ikasten hasi ginenean ezin nuen ulertu gure mundutik kanpo, gure galaxiatik kanpo, oraindik espazio zabalago bat existitzen zela. Edo hobe esanda, rasionalki ulertzeko kapaza nintzen, baina ez ikusteko, ez horren imajina bat sortzeko. Niretzako, zenbaki nagusien gainean ber zenbakitxo ñimiñoak jarri arren, ilargitik haratago ez dago neurtzeko modurik.

Proporzio arazo bat dela argi dago, eta izarrekin ez ezik, bestelako zenbakiekin ere gertatzen zait. Diruarekin, esaterako. Agian diruz josita jaiotako izan banintz, Gilito osabaren moduan txanpon mendixken tamaina neurtzen jakingo nuke, noiz diren 500.000 euro eta noiz hogeit hamar milioi. Kapazitate hori ez dut, alabaina, eta «diru asko» labeletik at ezin dut zehaztu kantitate batetik gora doana.

Berdina sumatzen dut medioek Haitikoa bezalako ezberharren irudi eta datuak ematen dituztenean; saiatu, saiitzen naiz, baina ezin imajinatu. Ezin buruaren espazioan kabitut. Sentsazio horrek beti eragin dit ezinegon itzela, errealitatea barneratzeko kapaza ez izatearena, hain zuzen. Horrekin

batera, hitzik gabe, espresatzeko errekurtsorik gabe geratu garenaren beste bat. Irudiak hain dira egun espektakularrak, hain dira galkorrak, ez dutela barnerakoiak izateko kapazitaterik, eta kontzeptuak hain dira latzak eta zabalak, ezin ditugula konprenitu.

Ezbeharraren irudikapena

Beharbada sentimendu hau unibertsa delako, askotan artistek ezbeharren gaiak tratatzen dituztenean, monumentaltasun ikusgarrira jotzen dute, horrekin batera dramatismoa eta hain kristaua den kulparen ideiak bultzatuz zabalak, tamainak eta zamak ezinegona espresatzeko posibilitate bakarra eskainiko balute lez. Adibide gisa, Parisko Grand Palaisen ireki berri den Christian Boltanski artistaren erakusketa. *Monumenta* zikloaren barnean, espazioak jada proportzio erraldoien beharra ezartzen duelarik, *Personnes* erakusketa proposatzen du Boltanskik. Hitz jokoa, frantsesez, etimologiaren altxor baten bidez, «*personne*» hitzak pertsona eta inor ez esan nahi duelako aldi berean.

Sartu eta eraikinaren nabe izugarrian zehar denetariko jantziak aurkitzen ditugu zoruan hedatuta, karratuetan antolatuta. Gonek, berokiek, txamarrek, atorrek hiri baten zabalguneko blokeen plantak sortzen dituztela pentsatuko luke batek, haien artean osatzen diren kaleetan barrena ikusleak paseatuz doazelarik. «Hiriaren» atzean, profetaren mendia antzaz, arropaz osatutako muino itzela. Honen gainetik garabi batek janzki batzuk hartu, metro batzuk altxa eta erortzen uzten ditu berriz ere; airean sortzen dituzten forma estetikoek begirada liluratzen dute. Garrantzitsua da halaber espazioan barreiatzen den soinua, bihotz taupadena, erakusketa zamatsua eta astuna bihurtuz.

Boltanskiren lanean holokaustoa askotan da presente, eta oraingo honetan aipamena zuzena ez bada ere, horren aurak espazioan dirau. Agertokia eraginkorra da: estutasunetik ihes egiteko, lekutik ateratzea da ikuslearen pentsamen-

du indartsuena. Eta hor sartzen da kulpa jokoan, beste batzuek ezin izan zutela ihes egin gogorarazten zaigulako zozulitasunez. Guk, aldiz, alde egin dezakegu.

Erruaren estrategia fazatitzat jotzen dut nik. Oso erraza da norbait errudun sentiaraztea, errazegi. Bai, ezbeharrak tamalgarriak dira. Baina kulparen sentimendu eraginak ez du arazoekiko benetako gogoeta bat bultzatzen; kulpa eta gero, agian batek Haitiren berreraikuntzarako diru apur bat emango du, hobeto sentituko da eta arazo konpondua. Hilarabete barru, ordea, Haitik telebistan agertzeari uzten diotanean gaia zaharkitua dagoelako eta berriak berri izan behar duelako, haitiarrak egoera ziztrin eta penagarri berean aurkituko dira.

Haiti munduko lurralderik pobreena da. Biztanleriaren ehuneko laurogeia pobrezian bizi da, ehuneko berrogei eta hamalaua pobrezia absolutuan. Eraikuntza prekarioa da, edozein materialekin eta edozein modutan egindakoa. Errepideek Euskal Herriko mendietan orain mende bat aurkitzen ziren bidexken antza omen dute. Dardara txikienarekin, dena hondoratzen da. Ez dago apenas ospitalerik, ez medizinarik. Lurrikara ezbehar izugarria izan da, noski; dena den, ezbehar nagusia hildako horien guztien atzetik dagoen miseria ikusten eta aztertzen uzten ez digutela da. Benetan garrantzitsuak diren galderak ez dira egiten.

Betiko istorioa, eta hala ere, betiko isiltasuna.

Eztabaida, etika, miseria

2008ko Manifestan ikusi nuen asko hunkitu ninduen lan bat. Belgikako Renzo Martens artistaren pelikula bat zen, edo hobe esanda, momentu horretan prestatzen ari zen film luze baten bertsio motzagoa. *Episode III* izeneko lan hau hasi aurretik, Martensek garai luzeak pasa zituen Afrikan bidaietan, eta GKE zein kazetari askoren lanek zalantza etiko aipagarriak sortarazi zizkieten. Izan ere, bere aburuz bai batzuk bai besteak bertakoen miseriaz baliatzen dira grafiko-

ki, argazkiak eta bideoak eginez, gero horiek nazioarteko informazio agentziei salduz eta dirutza bat irabaziz. Argazki horien protagonista direnek, noski, ez dute diruaren izpirik ikusten.

Martensi deigarria iruditu zitzaion argazkilari gehienei beren buruen posizioaren inguruko galderarik ez sortzea. Ez al ziren beraiek ere muturreko pobreziaren esplotatzaile? Mundu garatuak beste lekuetan zer gertatzen den ikusteko eskubidea badu ere, ez al gara irudi horien kontsumo kapitalista eta ustiatzailea bultzatzen ari?

Galdera horietatik abiatu zen *Episode III* lana. Martensek Kongora bidaiatu zuen, eta herri galdu eta pobretuetako biztanleentzat kurtsoak antolatzen hasi zen. Ikasgaia: ezbeharraren argazkilaritza. *Enjoy Poverty* (Goza ezazu pobrezia) neoizko kartel handia kokatu zuen herri horien inguruan, eta haien miserien argazkiak ateratzen irakasten hasi zitzairen, gero saldu ahal izateko. Pelikularen bertsio luzea oraindik leku askotan ikusgai egon ez den arren, ezin ukatu motzak bizarrak zutik jartzen zituela. Ume indargeen angelurik garratzenak zein ziren bilatzera bultzatzen zituen Martensek kongoarrak, argazkirik «onenak» lortzeko. Zenbaitetan, artista ia negarrez, aurpegia garbitzen, purifikazio errito batean bezala, agertzen zen kamara frentean, prozesua oso gogorra zela esanez. So egitea ere ez zen erraza.

Lanak, esan beharrik ez dago, eztabaida anitz sortu ditu. Hasteko, artistaren posizioa bera zalantzarria da, argi dagoelako berak ere pobrezia horren onura lortuko duela lanaren promozioaren bidez. Martensek, noski, badaki, eta hori da hain zuzen luzatu nahi digun arazoa: posible al da irudia komertzioetik aldentzea? Eta ezintasun horren aurrean, nola egin aitzina? Zergatik mendebaldeko argazkilari batek hartutako argazki batek ez du arazo etikorik sortzen, eta Kongo-ko bizilagun batek ondoko umeari egindakoak aldiz bai?

Hala ere, arte munduaren zenbait esparrutan lana ez da oso interesgarritzat jo. Bertsio luzea joandako apirilean egon zen Londresko Wilkinson galerian ikusgai, eta Dan Cox-ek,

*Friezerako kritikariak, bereak eta bi esan zituen. Esaterako, pelikulak gai gehiegi tratatzen zituela, eta GKEen kontra egiaztatu gabeko akusazioak botatzen zituela. Bestetik, sufrimenduan plazera bilatzen zuela leporatzen zion, hala nola kongoarrak «besteak» bezala tratatzen zituela, ia kolonialismoan eroriz. Nik uste Coxek ez zuela lanaren natura ulertu: izan ere, Martensek ez dizkigu erantzunak eskaini nahi, baizik eta galderak. Eztabaida piztea du helburu, interesgarrri eta beharrezkoak diren gaien gainean bestalde, eta interpretazio bakarra ez du onartzen. Horregatik guztiagatik da bederen *Episode III* erakargarria.*

Desastrearen ostean, ospakizuna

Boltanskiren lanak kulpa sortarazten du epe motz batean; Martensenak, ordea, ezinegon iraunkorra. Bada artea eta politika zuzenean ez liratekeela elkartu beharko defendatzen duen artista eta teoriagile asko, estetikak eta politikak maila desberdinetan jokatzen dutela aldarrikatzen dutenak. Baina hain erraza al da maila desberdinak banantzea? Azken finean, Coxek horretan arrazoia du: Martensen filmak gai asko ekartzen ditu aldi berean. Irudiaren izaerari buruz hitz egiten du. Espektakuluari buruz orobat. Etikari buruz, bestalde. Ezbehar egoera batean hartu beharreko erabaki zailei buruz ere. Arteaz ari da, irudiaren esparruaz, hala nola politikaz eta munduaz.

Ez naiz ni izango arteak nolakoa izan behar duen definituko duena; noski arte orok ez duela zertan politikari buruz hitz egin behar. Izan ere, hobe da politikaz ez aritzea horrekiko jarrera hipokrita bat izatea baino, maizegi gertatzen den zerbait, hain zuzen. Ezbeharrekin jarraituz, New Orleansko bienala da horren adibiderik esanguratsuena. Katrinak 2005ean hiria txikitu zuenean, agerian geratu ziren AEBetako desberdintasun sozialik famatuena. Zonalde pobreenen berreraikuntzak gehiegi luzatu ziren. Egoera horren aurrean, Dan Cameron komisarioak ideia bikaina izan zuen: New

Orleansen bienal bat antolatzea, honela jendea bertara erakarri eta hiriak sufritzen zuen egoera ikusarazteko.

Dirua biltzen hasi zitzaigun Cameron, eta hara milioi bat dolar lortu zuela. Berriz ere zenbakiak dar-dar egiten didate hemen. Diru horrekin erakusketa aretoak konpondu, artista ezagunak gonbidatu, lan berriak produzitu eta irekiera festa harrigarria antolatu zuen. Bere ustetan, hori baitzen hiriarri laguntza emateko modurik onena, ikusgarri bihurtzeko. Ostera, abioiek gonbidatuz beteta alde egin zuten, lanak kutxetan sartu eta egileei bidali zitzaizkien, eta New Orleansko biztanleek haien etxeak konpontzen jarraitu zuten bakardadean.

Artea karitate hipokrita bezala planteatzen denean, hobe pertsianak itxi eta etxean geratzea. Horrek ez du esan nahi, ordea, saiatzeari utzi eta munduari begiak itxi behar dizkionik. Alegia, inork ez du esan arteak zeregin erraza izan behar duenik.¶

Iznogoud

Gosciny eta Tabari komikigile frantsesen pertsonaia etorri zitzaidan burura Pedro Hernandezek Eusko Jaurlaritzako Berrikuntza eta Energia sailburuorde izateari utzi eta Tecnaliara joango dela jakinean. Izan ere, Iznogoud bisirrak kalifa izan nahi zuen kalifaren ordezt, eta PSEk Jaurlaritzza hartu zuenean Pedro Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo sailburua izango zela pentsatu genuen askok. Bere aspaldiko militantzia sozialistak, 1990eko hamarkadan Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Diputatu izanak eta EUVE enpresa teknologikoaren zuzendaritza nagusian eginiko urte luzeak kargu horretarako predestinatzen zutela ematen zuen. Mihi gaiztoek diotenez, berak ere uste hori zuen. Beraz, sailburu izan nahi zuen sailburuordea izan ei da.

Pedro Hernandezek Eusko Jaurlaritzza utzi izanaren arrazoi ofiziala izan da, Tecnalía korporazioaren zentroen fusioa bideratzen gida dezala nahi duela Jaurlaritzak eta lagun dezala Europako bosgarren ikerketa-korporazio bihurtzen. Susmoa hartu dute batzuek, eta neronek tartean, benetako arrazoa beste bat izan dela eta zerikusi handiagoa duela sailaren barne-orekarekin eta botere-partiketekin beste ezerekin baino. Tecnaliara joatean eta berarentzako kargu berri hori sortuaz irteera duina eman nahi izango zitzaiokeen.

Tecnaliak hilabete asko daramatza fusio hori antolatzen eta bideratzen. Prozesua nahikoa aurreratua dago eta 2011ko urtarrilerako bukatuta egotea da helburua. Edozein prozesu garatzen ari denean, eta are gehiago Tecnalía osatzen duten zentroen fusioa legezko prozesu konplexu batean, supituki kanpo-elementu bat sartzea prozesua lidertzeko asmoarekin distortsio-elementua da gutxien-gutxienik. Tentsio-itu-

rri izan daiteke eta fusio horretan ustekabeko oztopoak sor ditzake. Ene ustez, ez da izan ganorazko erabakia, baldin eta Tecnaliaren kupulan sortu duten lanpostu berri hori lore-on-tzi funtzioa baino ez duen.

Nabigatzen

Ohi duenez Net Applications aholkularitza-enpresa estatubatuarrak Interneteko trafikoari buruzko datuak jakitera eman ditu urtearen hasierarekin. Internet nabigatzaileen eboluzioari so egingo diogu datu interesgarriak ematen baititu. Datuei erreparatuta hauxe da azpimarragarriena:

- Internet Explorer da gehien usatzen den nabigatzailea; bere merkatu-kuotak beste guztien kuoten batura bikoizten du. Alabaina, bere kuota 7,81 puntu jaitsi da 2009an, %62,69 izanik abenduan.
- Firefox Explorer kuota jaten ari zaio eta jada %24,61era iritsi da, 2010ean zehar 2,92 puntu igoz.
- Chromek 2008an lantzatzen zenean ez zuen arrakasta handirik lortu eta oso erabilera urria izan zuen lehen hilebeteetan, %1aren bueltan, are gehiago Googleren produktua dela kontuan hartzen badugu. 2010aren bigarren sei hilekoan erabilera-gorakada aipagarria izan du eta hirugarren nabigatzailearik usatuena da egun, %4,63ko kuotarekin. Kuotak 3,23 puntuko igoera izan du.
- Safari eta Opera nabigatzaileen kuotak igotzen jarraitu du, lehenak %4,46ko kuota eta bigarrenak %2,4koa dutelarik. Appleren sistemak 1,05 puntuko igoera izan du iaz.

Joera argi bat ikusten da nabarmen: Explorer nagusia izanik ere, kuota etengabe galtzen ari da eta 2009ko galera oso aipagarria izan da. Zeintzuk dira arrazoiak? Arrazoi ideologikoak egon badaude, beste sistema batzuk baliatuta, Firefox bereziki, Microsoften nagusigoaren aurka egiten dutenenak, baina hori ez litzateke nahikoa izango gertatzen ari dena esprikatzeko. Arrazoi teknologikoak ere badaude. Merkatuan

duen nagusitasunak lokarrarazi du Microsoft eta bere nabigatzailea behar bezalako suhartasunez ez berritzea ekarri du, eta, aldi berean, lehiakideek gogor ekin diote beren nabigatzaileetan hobekuntza funtzional eta teknologikoak integrazeari. Nolabait, Explorer zaharkituta gelditu da.

Ikusi beharko da zer gertatzen den etorkizunean: Microsoftek 2009an kaleratutako Explorer 9k joera geldiaraztea lortzen duen, batetik. Europako Batasunak Microsofti defektuzko nabigatzaile moduan Explorer jartzea debekatu dio eta horrek zein ondorio duen erabiltzaileen aukeran ikusi beharko da, baina kalterako izango da onurarako baino. 2010ak ere argi dezake Explorerren lehiakide nagusia Firefox den soil-soilik edo Chromek ere paper hori hartzen duen. Bestalde, Firefoxek erne ibili beharko du behetik bultzaka datorren Chromerekin, aitaponteko oso boteretsua baitauka.

Azkenik, azpimarratu behar tresna mugikorretatik eginko nabigazioaren kuotak biziki egin duela gora eta egun %1,3koa dela.

Zientzia txarra

Izenburu horixe du, *Bad Science* alegia, oheburuko dudan liburuak. Ben Goldacre mediku eta zientzia-dibulgatzaile ingelesak idatzitakoa da. Hizkera zientifikoaz jantzitako marketing erasokorraren babesean merkatuan aurki daitezkeen dieta, osagai nutritibo, terapia miragarri eta enparauen mundua biluztu egiten du, atzean dagoen gezurra eta iruzurra agerian utzita. Besteak beste argi eta garbi adierazten du halako edo bestelako osagarria duen esnekiak kolesterola ez duela gutxiagotzen, telebistan termino zientifikoak usatuta bestela esaten badigute ere, eta kolesterolaren arriskua ebitatzeko dieta egokia eta orekatua izatea dela zentzuzkoena.

Hontax liburuaren lehen lerroak, lagin moduan:

Utzi egidazue zuei esaten gauzak zein egoera txarrera etorri diren. Britainiako milaka eskola publikoetan irakasleek beren ikasleei irakasten diete burua gora eta behera mugitu

egiten badute lobulu frontaletara doan odol-fluxua handitu egingo dela, beraz beren kontzentrazioa hobetu egingo dela; hatzak modu berezi batean elkar igurzten badituzte gorpuztean 'energia fluxua' areagotuko dutela; prozesatutako janarian ez dagoela urik eta mihian ura gordez garuna zuzenean hidratatuko dela aho-sabaian zehar, 'garun-gimnastika' deritzon ariketa-programa berezi baten parte moduan. Tarte bat dedikatuko diegu uste horiei eta, are inportanteago, horiek gure hezkuntza-sisteman sustatzen dituzten bufoiei.

Liburuaren testuingurua oso britainiarra bada ere, bertako sozietatearen nortasuna, ajeak eta ohiturak nonahi agertzen dira-eta, narratzen dena gurera ere ekar daiteke eta esango nuke denbora pasa ahala gero eta proportzio handiagoan. Beraz liburua irakurtzea gomendatzen dizuet, gogo irekiaraziko dizue eta zentzuak erne jarraraziko dizkizue sasi-zientzia eta ustekerien aurrean. Euskarazko itzulpenik ez du, gaztelaniazkorik ote duen ez dut Interneten argitzea erdietsi. Ingelesezkoarekin konformatu beharko dugu oraingoz edota Goldacreren webgunearen jarraipena eginenez: www.badscience.net.

Energia jasangarriak

Joan den azaroko *Scientific American* aldizkariaren alean oso artikulua interesgarria publikatu zen etorkizuneko energia-hornikuntzaz. Mark Z. Jacobson eta Mark A. Delucchi egileek 2030 ingururako gure energia-beharrak iturri berriaztagarrietatik lor daitezkeela esaten dute fermuki.

Jacobson eta Delucchiren proposamena oso kitzikagarria da eta bestelako etorkizun energetikoa egon daitekeela amesteko beta ematen du. Beren proposamenak mundu-mailako konpromiso irmoa eskatzen du, garaiotan oso nekeza ikusten dena, eta ikuspegi horretatik ameskeriatzat jo daiteke. Beren ideiek neurri apalagoan aplikatuta zein noranzkoan higitu behar dugun energia jasangarriagoa lortzeko erakusten dute eta baita lorgarria dela ere. Artikulua ez dago, ordaindu ezean, *Scientific American*en webean leizerik, baina

esteka honetan ikus-entzunezko bertsio laburra eskaintzen dute: www.scientificamerican.com/article.cfm?id=powering-a-green-planet. Hona ideia nagusiak ekarriko ditut *Jakinen* irakurleekin konpartitzeko.

- Eskala handian lanean ari diren edo aritzeko gertu dauden teknologiak bakarrik hartu dituzte kontuan. Ez dute espekulatu 30 urte barru egon daitezkeenekin.
- Bizitza-ziklo osoan berotegi gasen eta poluitzaileen emisioak zero edo ia zero dutenak kontsideratu dituzte. Aukera egokienak eguzki-energia, eolikoa, mareena eta hidroelektrikoa dira. Egileek WWS (wind, water, sun) akronimoa usatzen dute horiei esateko. Euskaraz, apika, UHE erabil genezake.
- Beren iritiz, erregai fosilen bidezko berokuntza-prozesu ia guztiak UHEren bidez ekoitzitako energia elektriko-koz ordezkatu daitezke eta garraioan erabiltzen direnak bateriaz eta erregai-pilaz ordezkatzeko badago.
- Egun energia-kontsumorik handieneko unean munduan 12,5 TW behar dira, AEBetako Energia-informazioarako Agentziaren arabera. TW, hots terawatta, 1×10^9 watt dira. Agentzia horrek egiten dituen proiektioetan 2030erako 16,9 TW beharko dira. Datu hori baliagarria da energia-iturrien mix-a egungoaren antzekoa bada. Alabaina, soilik UHE iturriak usatuko balira, energia-eskaera globala 11,5 TWekoa izango litzateke. Hori ez da aztikeria, energia-iturri desberdinen eraginkortasunaren ondorio baizik. Auto bat higiarazteko, gasolinaren energiaren %20ren bueltan baino ez da erabiltzen, gainerakoa bero moduan galtzen delarik; baina autoa elektrizitatez hornitzen badugu, sartutako energia elektrikoaren %75-86 bitartean autoa higiarazteko baliatzen da.
- Une jakin batean Lurrean sortzen den eguzki- eta haize-energia 8.200 TWekoa da. Jakina hori guztia ez da goela biltzerik eta erabiltzerik; adibidez, ozeanoetan dabilen haizea ezin da erabili. Edozein kasutan ere, eguzki-energiaren kasuan 580 TW eta eolikoarenean 40-85

TW bitartean bil daitezke. Gaur egun 0,02 TW energia eoliko eta 0,008 TW eguzki-energia baliatzen ditugu soilik.

- 2030eko energia-eskaria 11,5 TWetan finkatuz, Jacobsonek eta Delucchik proposatzen duten energia-mixak %9 baino ez die lagatzen urarekin erlazionatutako energia-iturriei. Haizeak energiaren %51 hornituko luke, hots, 5 MWeko 3,8 milioi haize-sorgailuk emandakoaren pare. Sorgailu-kopuru horrek itzelezkoa irudi lezake, baina konparaziorako urtean 73 milioi auto, furgoneta eta kamioneta ekoizten dira munduan. 300 MWeko 89.000 eguzki-zentral beharko lirateke. 900 zentral hidroeletriko ere beharko lirateke, baina orain horien %70ek lanean dihardu jada.
- Egileek horrelako egitasmo erraldoiak utz lezakeen arrasto ekologikoa ere kontuan izan dute. Ez naiz hemen xehe-tasunetan sartuko eta datu bakarra emango dut: oraingo eskemarekin jarraituta eta erregai fosilak energia-mixaren ardatza badira, 2030ean egongo den 16,9 TWeko eskariari aurre egiteko 13.000 ikatzezko zentral termoeletriko berri eraiki beharko dira, proposatzen duten eskemak baino arrasto ekologiko handiagoa lagako duena, berotegi-efektuaren ondorioak kontuan hartu gabe.

Egia esan, ametsa dirudi. Horrelako proposamen bat profeta mesianikoen fabulatzat har daiteke edo Olentzerori idatzitako gutuntzat. Horrela izan daiteke. Asko eta askotariakoak dira gainditu beharreko erronkak: sozialak, politikoak, teknikoak... Erraza da imajinatzea haize-sorgailuak ugaritu behar badira, han eta hemen sortuko direla kontrako mugimenduak *nimby* efektuaren ondorioz (*not in my backyard*, ez nire etxe atarian). Agintari politiko askoren itsukeria edota epe laburreko interesak (ekonomikoak barne) ere oztopo izango dira. Alor horretan beti kostatu izan zait entenditzea EAEn, EVE eta SPRI sail beraren menpe egonik, poligono industrial berriak sustatzen direnean pabilioien teila-tuetan eguzki-panelak paratzea ezinbesteko baldintza ez

izatea. Zenbat kilometro koadro teiltatu dugu EAEn eguzkia-
ren izpiak alferrik jasotzen? Jacobson eta Delucchiren pro-
posamenak, halaber, energia-sorkuntza sakabanatua bultza-
tzen du, hots, zentral handitan oinarritutako sorkuntza-sis-
temak zentralitatea galtzea eta energia modu ahalik eta lo-
kalenean sortzea. Hori konpainia elektrikoek gustuko plate-
ra ez da. Bestalde, energia-sorkuntza sakabanatuak sare elek-
trikoa kudeatzeko sistema berritzaile inteligenteagoen so-
rrera eskatzen du. Ezin da ahaztu eguzki- eta haize-energia-
ren alorrean baliatzen diren neodimioaren, telurioaren eta
indioaren moduko elementu kimikoen hornikuntza muga-
tua dela.

Gizakion eta sozietatearen historiari erreparatzen badio-
gu, argi eta garbi ikusten da konpromisoa benetakoa denean
erronkarik handiena bete egin daitekeela. NASAk 10 urteko
epean zerotik abiatuta gizakia Ilargian pausatzea lortu zuen
AEBetako administrazioaren konpromiso irmoa egon zela-
ko eta NASARI BPGaren %5etik gora esleitu izan zitzaio-
la ko urte horietan.¶

The Road

Izugarrria da irakurketa batek zein inpresio ezberdin sor ditzakeen. Lagun on batek gomendatu zidan *The Road*, Cormac McCarthy-k idatzi zuen lana. Berrehun bat orrialde baino ez dira, baina niri neuri latzak egin zitzaizkidan. Latzak irakurketak nigan eragin zituen izua, tentsioa, ezin negona. Garrasi egin nahi nuen batzuetan. Gauetan lo orduko unean, aita-seeek etxe bateko sotoan aurkitu zituzten «jakiak» ezagutu ostean ezin izan nion liburuari eutsi. Ito egin ninduen irakurketak, eta amaieran, segundo batez, bihotza gelditu zitzaidala esan nezake okertuko ez naizen beldurrez. Digestio astunekoia da McCarthyk idatzitakoa. Marmaratze patxadatsua eskatzen duena. Niri, behintzat, hala gertatu zitzaidan.

Liburu batzuek arimaren barru barrena hartzen dute; lurralde konkistatu sentiarazten zaituzte. Istorio batzuk irakurri eta atoan zurekin doaz, zeure bilakatzen dira. Liburu honekin horixe pasatu zitzaidan.

Egia da apokalipsiaren gaia jorratuegia dagoela. Honek, baina, bestelako kontaera dauka, hasieratik amarauna sortzen du irakurlearen inguruan, eta harrapatu ohi du. Denak J izan ezik. Bera irakurle amorratua da; bera non liburu han. Sarri berba egiten dugu gustatzen zaizkigunez. *The Road* irakurri ostean afari batean mahairatu nion McCarthyrena. Hainbeste gauza esan ostean erosi egin zuen eta baita Pragarako bidaia batean irakurri ere. Agian zero azpiko hotza izango zen baina Euskal Herriratzerakoan niri egin zidan lehenengo telefono deia. «Ia akatzen zaitut Pragako gauaren hotzean, liburu hau zabor hutsa da!». Ez nuen itxaroten horrelakorik. «Liburu zabaltzen dudano tapaki bat eta sua

aurkitu izan ditut. Liburua halako orrialdean ireki eta tapakia edo sua. Eta sua. Eta tapakia».

Harrigarria egin zitzaidan gustuko ez izatea. Egia da ba-koitzak bere-bereak diren filiak eta fobiak badituela, izan; eta zaila dela azaltzen zergatik batek erakartzen zaituen eta zergatik besteak ez. Saiatu nintzen konbentzitzen, biziki saiatu ere. Hitzezko eraikina egin nion barruan sorrarazi zidana esplikatu, itogura hura deskribatu. Baina berak tapakia eta sua baino ez zituen ikusten. Orduan pentsatu nuen: zelan lortu istorio batek nigan sortutako lilura izurrite bilakatu eta J-rengana eramatea? Baina ezinezkoa da. Literatura lanekin sentitzen direnak gauza serioak direlako, norbanakoarenak eta besterenezinak. Cormac McCarthyren apokalipsiak Pulitzer saria irabazi zuen. J-ri bost inporta zaizkio sariak, oso ospetsuak badira ere. Lagun batek ezin badu *The Roaden* izugarrikeria igorri, gutxiago egingo du sari batek.

Bookcrossing Bilbon

Gurasoen etxera ailegatu da liburu bat. Hau gauza normala da, gurasoen etxea liburuz beteta dagoelako; baina ikusi eta berehala jabetu nintzen ezberdina zela. Ez zen erosi/oparitutakoa, eta ez zen liburutegitik ekarritakoa. Aitak azaldu zidan Bookcrossing bidez eskuratu zuela. Bueno, gure aitak ez daki zer den *bookcrossing*. Aitak anglofiliarik ez du eta apal-apal azaldu zidan metroan liburuak askatu dituztela eta horietako bat bere lagun baten eskuetara heldu zela. Lagun horrek irakurri ostean aitari eman zion niri eman ziezadan.

Honera arte bitxia baina ez arrotza. Gauza da liburua euskaraz idatzitakoa dela. *Otto Pette*, Anjel Lertxundirena. Metroko aulki batean aurkitu zuen eta hartu egin zuen. Irakurri ostean bere izen abizenak paratu zituen barrualdean, «gustatu zait» idatzi eta neuri pasatu zidan. Aitortu behar dut ez dudala irakurri. Kontzientzia kargua eman zidan, baina ezinezkoa egin zitzaidan. Edozelan ere libertatea eman nion euskarazko liburuari. Irudikatu nahi izan nuen liburua uki-

tuko zuten hurrengo eskuak zelakoak izango ziren. Eta tranpa txikia egin nuen: neure izen-abizenak eman nizkion.

Tokioko metro geltoki bitan liburu-vending bana paratu dute. Batek litxarrerria vending itxura dauka. Besteak, aldiz, saltxitxautoa dirudi... baina liburuak ditu. Liburuak hartu eta irakurri ostean bertan utzi behar dituzu. Tokiotarrek betetzen ei dituzte irakurzaletasuna bultzatzeko arau horiek. Leitu ondoren liburuak vending berezian uzten dituzte.

Mexiko DF eta Monterrey hiriko metroetan, ostera, horrelako egitasmoren bat abiarazi zuten. Lagun batek kontatu zidan. Itxura denez liburuek ez zuten buelta egiten eta hortxe amaitu zen bookcrossing mexikarra. Apal bakartietan. Bartzelonan gehiago irauan omen zuen, baina hemen ere ez ziren liburuak bueltatzen. Sarean irakurri dut Kolonbian egitasmoari «Libros al viento» izena eman zitzaiola. Liburuak hitzak baino pisutsuagoak izan arren, haizeak eramane zituen. Liburuak.

Doakotasunaren kultura edo ohitura edo dena delakoa ei da. Debalde ematen den oro eskuratu egiten da. Liburuei dagokienez, berriz, non amaitu dute liburuok? Irakurle berririk sortu dira, zaborrontziek gainezka egin dute edota hautsaren eremura pasatu dira?

Bilboko bookcrossing-aren hariari eusten diote oraindik ere. Kanpainak auzorik auzo dabilta. Momentuz bada zer irakurri.

Literatura metroan

Hau ez da batere zientifikoa. Azken hiru domekatan egingo dako azterketa bisuala baino ez da; badakizu, atentzio izugarria jarri eta pasatzen den guztiarekin gelditu. Aste barruetan metroa hartzen duenak liburuak ikusiko ditu. Eta irakurleak. Ez, ez da liburutegi bat baina esan nahi dizudana da norbait irakurtzen jarduteak ez duela atentziorik deitzen.

Tira, harira. Aste barruan irakurleak jardunean ikus ditzakezu, ez berriz, astegoienetan. Antza denez zapatu eta

igandeetan irakurleek ez dute metroan irakurtzen. Edo beste barik ez dute metrorik hartzen. Ikerketa astehondar horietako batean ustekabekoa gertatu zitzaidan: gizon-emakume bi liburu bana irakurtzen. Bistan zenez elkar ezagutzen zuten, are gehiago, antzerakoak egin zitzaizkidan: betaurrekoak, jeans eta elastikoak, liburu bana. Bikotea zen. Emakumeak liburua amaitzear zuen eta irrika biziz egiten zuen orrialde pasa. Orrialde zaharrak ziren. Horizontatuak. Birziklatzearen aurreko belaunaldikoak. Liburua ere argitalpen zaharra zen, azal gogorrekoa eta minimalista. Izenburua eta egilearen izen-abizenak baino ez ziren azaltzen. Akordura etorri zitzaidan etxean zegoen *Guerra y pazen* edizio zahar bezain potoloa. Orrialdeak pasatzerakoan haizeska antzekoa sentitzen zenuen, eta usain berezia isurtzen zuen. Ustedut Tolstoik idatzitako orri arteek zekartena ulertu barik sentitu nuela lehenengoz literaturaren lilura. Metro irakurleak ere berdintsua sentitzen zuela zirudien.

Momentu batez zorroan neraman liburua ateratzeko tentazioa izan nuen. Elkartasunagatik edo. Agian, bikotearekin ménage à trois literarioa egiteko. Baina liburua ateratzen duzunean ezinbestean murgildu behar duzu istorioak daskarkizun unibertso horretan. Sasi ikerketa honek ere jarraipena behar zuen izan. Hortaz, aztertzeko segitu nuen.

Gizonak hasi berria zuen liburua. Denborak beilegitutako orrialdeak zituen bere irakurketak ere. Astiro pasatzen zituen orriak, kontrakoa sakrilegioa balitz bezala. Plaza Barriko azoka txikiarekin gogoratu nintzen. Bigarren eskuko liburuak saldu ohi dituzte. Kalitatea denetarikoa izan liteke, liburu-jabearen mimoen arabera. Emakumeak, bistan denez, lehenagotik zuen liburua, liburua amaitzear zuelako diotsut haxe, eta, Billy Bizkorra bat eta bakarra zegoelako. San Mames geltokira heltzerakoan emakumeak liburua zarratu zuen eta irteerara jo zuen. Gizonezkoari jaramon txikia ere ez zion egin. Ez zuten elkar ezagutzen. Irakurle bakarti bi ziren, bata bestearen aurrean, bakoitza bere irakurketan murgilduta.

Eta gero esaten dute psikologiarik ez dudala.

Liburu dendan, bakarrik

Estatu Batuetako film independenteetan beti ageri da liburu denda interesgarria, eta bertan beti dago liburu den-dena ezagutzen dituen liburu saltzailea. Azken erromantiko literarioa izan ohi da pertsona hori, sarri, liburuak saltzerakoan mina sentitzen duelako. Seme edo alaba batek alde egingo balio bezala.

Horrelakorik aspaldi ez dut ikusi nik. Beharbada gure herri honetan zaila da horrelakorik aurkitzea. Agian herri txikiagoetako liburu dendatan... Adibide bat.

Mathias Malzieu-ren *La mecánica del corazón* (*La mécanique du coeur*) erosi behar nuen. Gauza bi baino ez nekizkien: izenburua eta eleberri laburra zela. Liburu denda eza-gun batera sartu eta harat honat zebilen neskari galdetu nion liburuaz. «Hori psikologian; autolaguntza sailean, goiko pisuan». Ai ene jangoikua bera bakarra ta nahikua, esan nion neure kolkoari. Atsegin handiz zuzendu nion okerra. Eleberria zela azaldu nion, frantses batena. Sinesgarritasun gutxi eman zion nik esandakoari eta Orojakileari galdetu zion. Bilatzailean sartu eta Orojakile teknologikoak dena argitu zion: beheko solairuan, gazte saila, laugarren apala. Liburua ekarri zidan. Markatu, kobratu eta oparitarako ote zen itaundu zidan. Baietz esan nion. Liburu dendako propaganda zeraman paperean batu, eta pegatina ederra itsatsi zion. «Gustatuko zaizu». Bai, neuri ere harropuzkeria galanta iruditu zitzaidan.

Salbuespen izan zitekeen. Gaitzerdi horrela balitz. Baina ez. Cicerone literarioak gutxi dira. Forrester jauna Sean Conneryren praktetan baino ez da zeluloidean existitzen. Dozena erdi liburu denda zeharkatu ondoren zera ondorioztatu dut: gehien dakiena Orojakile teknologikoa da. Eta honek ere, gutxi.

Lagun bati azaldu diot jazotakoa. Berak normaltzat hartu du. Liburuak edozeinek sal ditzake, esan dit. Apaletan paratuta daude, alfabetikoki antolatuak. Zalantza txikiren bat

badute Orojakile teknologikoak esango die nork kaleratua den, noiz, zer kontatzen duen, eta ISBN zenbakia ere eman diezaieke. Ez digu kontatuko, ordea, hirugarren kapituluaren hasiera mundiala dela, pertsonaia nagusia ostenduta bizi den idazle baten bizitzan oinarrituta dagoela, eta ehun eta hamaseigarren orrialdearen hasierak oilo ipurdia eragin diezazukeela.

Estatu Batuetako film independenteetan jazotzen ei da hori.

Zergatik irakurri?

Ezagutzen ez dudan etxeetara sartzen naizenean mania txikia gailentzen zait betitik: liburuak bilatzen hasten naiz. R-ren etxean ez dago libururik. Berak ozen esaten du ez duela irakurtzen. Ez du literatura behar, hori gabe bizi daiteke eta apaletan hautsa baino ez die eragiten. R-k ez du libururik erosten, eta bateren bat oparitzen badiozu zuzen esango dizu berak ez duela irakurtzen eta ez ezazula alferrik dirurik xahutu.

Sasoiotan ez dago ondo ikusia irakurtzen ez duzula esatea. Are gehiago, sarri egiten dituzten inkesta eta galdeketetan beti dago literaturari egokitutako liburua: «Zein liburu maitte duzu gehien?». Edota «Zure ustez zein liburu dira funtsezkoak?». Berari behin horrelako inkesta bat egin zioten. «Ez dut irakurtzen», esan zion inkestatzaileari. Inkestatzaileak ezin zuen sinistu eta tematu egin zitzaion, «baina izango duzu etxean libururen bat barruraino sartu zaizuna». R-k zuzen ziotson behin eta berriro: ez. «Ez dut irakurtzen, aspergarria egiten zait eta etxean ez dut libururik». Inkesta egileak ezin zuen sinistu eta R-ren hutsa bete nahi izan zuen. «Halako idazlearen azkenaren izenburua jarriko dizut inkestan». Eztabaida bizian amaitu zen hura, R-k ez zuelako inondik inora irakurle lez agertu nahi ditzosozko inkesta hartan.

Uste dut ez-irakurle militantea dela. Ikasketa sasoiaren irakurri zuen derrigorrezkoa zelako; plazerik, baina, ez dio

ematen. Sufrimendurik ere ez. Indiferentzia baino ez dio sortzen. Duela hilabete gutxi bi liburu irakurri ditu aspaldiko partez eta lagun baten eraginez: *Millenium* saileko lehenengo biak. Hondartzan txanpinoiak lez ikusten ei zituen eta horrek azkeneko bultzada eman bide zion. Irakurri zituen. Amaieran lagunoi azaldu zigun nahiago zuela garagardo batzuk, zuzeneko kontzertu bat edota pelikula bat.

Ez zaio gustatzen, eta kitto. Dagoeneko ez dakit konbentzitu behar ote dudan. Ez dut «ez zait gustatzen»-i erantzuteko argudiorik. Esan niezaioke unibertso zoragarriak aurki zenitzakeela, barruak iraultzen dizkizun hamaika sentimendu ager litezkeela. Zuri bururatzen zaizkizun horiek eta bi. Esan niezazkioke. Baina ez dut konbentzitutako berak argi duelako ez zaiola gustatzen. Aspergarria begitantzen zaio. Nerudaren poema hasiera bat etorri zait akordura: «Liburu, zarratzen zaitudanean bizitza zabaltzen dut».

R-k ez du bizitzarik xahutu nahi, nonbait, eta nik lagunak diren modukoak onartu behar ditut.¶



Prestakuntza eta informazio soziolinguistikoa

Soziolinguistikari dagokionez, gero eta prestakuntza handiagoa du Euskal Herriko biztanleriak. Agian ez biztanleriak bere maila orokorrean, baina bada kategoria profesional bat plangintza linguistikoarekin ohitura handia duena, eta ondorioz soziolinguistikari buruzko formazio gero eta sakonagoa duena. Gizarte mailan anitz dira euskararen inguruan lan egiten duten elkarteak, eta euskararen egoera gai arrunta da euskaldunen arteko berbaldietan, eta baita zenbait erdaldun elebazarren artean ere. Azken kasu honetan, nahiz eta gehienetan formazio soziolinguistikorik ez izan, iritziak eta ikuspuntuak azaltzen dira egoera soziolinguistikoari buruz: plangintza linguistikoari buruz, euskararen erabilerari buruz, iritzi linguistikoei buruz, etab.

Plangintzari buruzko iritziak gero eta finagoak dira profesionalen artean. Plangintza linguistikoaren maila teorikoa eta aplikatua ondo ezagutzen dira, azken urte hauetan hori baita gehien landu den alor soziolinguistikoa. Profesionalak ez direnen artean, aldiz, badirudi diskriminazio positiboa bezalako kontzeptuak ez direla 80ko hamarkadan bezainbeste ulertzen edo baloratzen; iritzi horien azterketa kualitatiboa eta objektiboa egitea beti interesgarria da.

Prestakuntza soziolinguistikoari dagokionez, jendeak interesa azaltzen du askotan baina ez daki erantzunak non bilatu. Komunak eta ohikoak diren iritzi soziolinguistikoak kritikatu nahi badira, urtero kaleratzen diren inkesta eta datu soziolinguistikoak analizatu gabe irentsi nahi ez badira, non aurki daiteke soziolinguistikari buruzko prestakuntza? Soziolinguistikari buruzko informazioa non eskura daiteke?

Interneteko eskaintza

Informazio eta prestakuntza soziolinguistiko horiek eskuratzea batere erraza ez dela irudituko zaio hainbati; dena den, mundu mailan, oso leku gutxik dituzte Euskal Herrian eskura dauden baliabideak. Prestakuntzari dagokionez, unibertsitateetan dagoen eskaintzari Hiznet graduondokoa gehitzen zaio (<http://hiznet.asmoz.org>).

Informazioari eta autoprestakuntzari dagokienez, iturriak ere anitz dira. Denboran zaharrena eta prestigio handiena duen instituzioa Euskaltzaindia da (www.euskaltzaindia.net) eta bereziki Jagon saila (www.euskaltzaindia.net/index.php?option=com_content&Itemid=329&catid=137&id=263&lang=es&view=article).

Euskaltzaindia aitzindaria izan da euskararen egoera soziolinguistikoa aztertzean, eta Euskal Herriko egoera analizatu ez ezik, soziolinguistika teorikoari buruzko ekarpen anitz egin du. 1922tik, euskarak gizartean duen lekuaz interesatu da Euskaltzaindia; 1978an *Euskararen liburu zuria* argitaratu zuen Akademiak, eta etengabe argitaratu ditu lan soziolinguistikoak. Azkena Miquel Gros i Lladósen *El euskera en la Comunidad Autónoma Vasca* (2009) da. Euskal Herriko egoera orokorra eta bere alor garrantzitsuenak aztertu ditu Akademiak, adibidez Elizaren alorra (www.euskaltzaindia.net/dok/iker_jagon_tegiak/65922.pdf).

Euskal Herriko egoera aztertu ez ezik, ekarpen teorikoak ere egin ditu eta aztertu daitezke (adibidez, J.M. Odriozolaren *Soziolinguistikaren atarian*). Akademiak landu dituen gaiak eta *Euskera* aldizkarian soziolinguistikari lotuta argitaratu dituen lanak J. Intxaustiren artikuluko batean zerrendatzen dira: «Joanes Etxeberri egitasmoa (2007-2008)», *Euskera*, LVII, 2007, 1, 239-267.

Askoz gazteagoa den elkarte bat ere zuzen-zuzenean lotzen da soziolinguistikarekin eta bereziki Euskal Herriko soziolinguistikarekin: Soziolinguistika Klusterra (www.soziolinguistika.org). Elkarte horrek, ikerketa eta informazio sozio-

linguistikoa emateaz gain, *Bat* soziolinguistika aldizkaria argitaratzen du. Azken lau zenbakien edukia ezik, beste ale guztien edukia aurkitzen da Interneten (www.soziolinguistika.org/node/3). Aldizkari horretan informazio anitz eta oso baliagarria aurki daiteke; gainera, aurten aldizkariaren 20. urtebetetzea ospatzen da. Bistan da, beraz, azken informazioa ez ezik, eztabaida soziolinguistikoen bilakaerari buruzko informazioa ere aurkitzen dela aldizkari honetan.

Soziolinguistika Klusterraren webgune berean atal bereziki interesgarria dago: «Soziolinguistika materialak» (www.soziolinguistika.org/eu/fitxategiak/152). Bertan esteka anitz dago, orrian bertan eta baita orriaren ezkerreko partean dagoen zerrendan ere (Edukiak eta erreferentzien bilgunea: www.soziolinguistika.org/eu/bilgunea). Soziolinguistika Klusterraren webgunean informazio anitz dago beraz, eta gainera dena euskaraz dago. Bestalde, laster soziolinguistikari buruzko eskuliburu bat argitaratuko dute.

Beste iturri garrantzitsu bat interneten www.erabili.com da, irakurle gehienok ezagutuko duzue. Bereziki interesgarria izan daiteke horien berriak jasotzea (www.erabili.com/zer_berri/berriak). Berriei dagokionez, Gipuzkoako Foru Aldundiko webgunea ere interesgarria da: www.gipuzkoa.euskara.net/albisteak.

Interneten ez da ahaztu behar hiru probintzietako gobernuaren webgunea (www.euskara.euskadi.net/r59-734/es). Bertan denetarik dago: informazio soziolinguistikoa, inkestak, euskarazko tresna informatikoak... Euskal Herriko egoera soziolinguistikoa ezagutzeko ezinbestekoa da bertan dagoen informazioa aztertzea, baina prestakuntza soziolinguistikaren aldetik, maila teorikoari dagokionez, informazio gutxi aurkitzen da.

Blogen artean, «garaigoikoa» bereziki interesgarria da (www.blogak.com/garaigoikoa). Beste iturri bat Interneten Hiznet da. Soziolinguistikari buruzko graduondokoaren barnean prestatutako azterketak eta sakontze egitasmoak Hizneteko webgunean aurkitzen dira (<http://hiznet.asmoz>).

org/index.php?option=com_content&task=view&id=33&Itemid=46).

Bistan da, Interneten informazio soziolinguistiko anitz aurki daiteke, eta dezente ez ditut hemen aipatu, batzuk ahaztu egin zaizkidalako eta beste batzuk, informazio anitz izan dezaketen arren, ez dutelako lotura hain zuzena soziolinguistikarekin. Adibidez, Udako Euskal Unibertsitatean, urtero ikastaro bat aurkezten da soziolinguistikari buruz; ondorengo hauek ere iturri aberatsak dira: Mondragon Unibertsitatea, Siadeco, EHE, Kontseilua, Topagunea eta euskararen inguruan lan egiten duten beste elkarte anitzek ere informazio soziolinguistikoak eskaintzen dituzte sarean. Enpresa pribatuak ere badaude eta prestakuntza aldetik oso aurreratuak izaten dira: Elhuyar, Emun...

Liburuak eta liburutegiak

Baina dena ez dago Interneten, eta gehienetan informazio hoberena liburuetan aurkitzen da. Soziolinguistikaren alde teorikoetan, metodologikoetan eta praktikoetan sakontzeko, hoberena liburuetan murgiltzea da. Liburu zerrenda bat egitea ezinezkoa litzateke; hori bai, euskarazko eskaintza handia bada ere, soziolinguistikaren alor batzuetan, bereziki teorioetan, sakondu nahi izanez gero komeni da beste hizkuntza batzuk erabiltzea (ingeleza, frantsesa, alemana, espainola...).

Kontzeptu soziolinguistiko bat ulertzeko, iturrietara jotzea oso garrantzitsua eta lagungarria da eta horretarako ezinbestekoa da irakurtzea, liburuak irakurtzea. Lagunen edo irakasleen iritziak beti interesgarriak dira, baina iritziak dira; nork bere iritzi propioa osatzeko iturrietara jotzea oinarrizkoa da.

Liburuek, gainera, beti abantaila handi bat dute Internetetik: euzkara bat izaten dute. Interneten gehienetan ez dago euzkarririk edo behintzat bilaketa bat egitean ez dago euzkarririk. Iritzi propio bat osatzeko berori antolatuta behar da. Lehenengo hipotesia planteatu, aztertu eta kriti-

katu behar da bigarrenera pasatu baino lehenago. Interneten ez dago mota horretako estrukturarik: askotan zerbait irakurtzen da, baina ez da nahikoa lantzen edo kritikatzeko eta gero ahaztu egiten zaigu. Liburuak honekiko abantaila handia dute, gainera normalean ikertzaileen lan garrantzitsuenak aldizkarietan eta liburuetan aurkitzen dira.

Liburuak aurkitzeko, Euskal Herriko eremu geografikoan aurkitzen diren unibertsitateen liburutegietan eskaintza antza dago. Gainera, Euskal Herrian soziolinguistikari buruzko munduko liburutegi handienetakoa dago, HABEren liburutegia hain zuzen. Liburutegia Donostian dago eta Interneten bere katalogoa aurkitu daiteke (www.ikasbil.net/jetspeed/portal/media-type/html/user/anon/page/liburutegia).

HABEren liburutegian gure zientziari lotutako bibliografia klasiko ia osoa aurkitu daiteke eta askoz gehiago ere: entziklopedia soziolinguistikoak, azken urte hauetako argitalpenak... Soziolinguistikan interesa duen pertsonari bertara joatea gomendatzen diot, beti aurkituko du zerbait berria edo interesgarria.

Espezialistek argitaratutako liburuez gain (Zalbide, Sanchez Carrión, Rotaetxe, Intxausti, Odriozola, Martínez de Luna, Erize, Isasi, Txillardeggi, Agirrebaltzategi, Larrañaga...), Euskal Herrian aldizkari oso emankorrek daude. Bat bada soziolinguistikari erabat lotuta: *Bat* soziolinguistika aldizkaria; eta beste batzuk leku bat aitortzen diote soziolinguistikari: Euskaltzaindiko *Euskera* aldizkaria, *Jakin* aldizkaria, unibertsitateek argitaratzen dituztenak, adibidez *Uztaro* edo hezkuntzari lotzen direnak; gainera, badira beste aldizkari batzuk profesionalak edo espezializatuak euskararen soziolinguistikari buruzko lanak argitaratzen dituztenak, adibidez *Karmel*, etab.

Urte hasierako berriak

Labur-labur hemen soziolinguistikaren alorrean ditugun azken berri batzuk aipatuko ditut. Hasteko Euskaltzaindiak

argitaratu duen liburua aipatu behar da, Miquel Gros i Lladósena hain zuzen ere, artikulu honen hasieran dagoeneko aipatu dut eta beraz ez naiz luzatuko hemen. Akademiak, gainera, «Etorkinak eta euskara» aztergaia izan zuen XIV. Ja-gon jardunaldietan (www.euskaltzaindia.net/index.php?Itemid=1&catid=121&id=574&lang=eu&option=com_content&view=article).

Ikerketen alorrean Soziolinguistika Klusterrak iaz bikoteen hizkuntza ohituretan eragiten duten aldagaiak aztertu zituen eta 2010. urte honen hasieran gazteen hizkuntza ohituretan eragiten duten faktoreak aurkeztu dituzte. Ikerketa oso interesgarria eta sakona da, beraien webgunean aurkitu daitekeena (www.soziolinguistika.org/gazteak).

Pozgarriak dira horrelako ikerketak eta jardunaldiak antolatzea, bai Euskaltzaindikoak, bai Soziolinguistika Klusterrakoak, gure ezagutza soziolinguistikoa osatzeko eta euskal soziolinguistikan ezagunak ez ziren puntuak argitzeko.

Plangintza eta maila administratiboari dagokienez, 2010erako Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoak 2009an baino baliabide ekonomiko gehiago eskuratuko dituela jakitea pozgarria da. Zorte ona eta eraginkorra izatea opa diogu Esteban Etxepare EEPko zuzendari berriari.

Denak ez dira berri pozgarriak, ordea; krisi ekonomikoa-gatik edo krisi ekonomikoa aitzakia hartuz, euskarari eskainitako aurrekontuek behera egingo dute hainbat gobernu, udal eta enpresatan, hala izango da behintzat Nafarroaren kasuan.

Etorkizun hurbilari begira, otsailaren 26an Soziolinguistika Klusterrak bere urteko jardunaldiak antolatuko ditu. Hasieran prestakuntzaz ari ginen, hona hemen beste aukera ona hausnartzen eta gure burua garatzen jarraitzeko...¶

Porto Alegren, malenkoniatsu

Esaten genuen iaz negu gorria jadanik amaitzen hasia delako seinaleak agertzen direnean gurean —inauteri eta kar-nestolenda, santageda koplak eta sanblas lokarritxoak, dena da bizitza eta beroaren ospakizuna—, munduko martxa iker-tzeko interesdunok begiak okertzen ditugula, noiz Suitzara, noiz Brasilerara begira, azkenean betoker geratu besterik lor-tzen ez dugula, batez ere aurten, noiz eta Davos —kapita-lismo globalaren gura, agintari eta enpresarien bilgune— kexak eta estatuei eskakizunak baino agertu ez direnean eta Porto Alegren alterglobalismoaren aktibisten despistea bai-no gorpuztu ez denean. Noraeza, munduaren martxa gidatu edota eraldatu nahi dutenen artean? Agian bai, krisi ga-riak halakoxeak izan ohi dira.

Deigarria da batez ere altermundialisten txoko globaletik etorritako mezu ezkor hori, malenkonia edo goibeltasuna dariola, iraganean borroka horiek hobeago ibili izan zirela-ko edo. Gogoratu behar da istorio hau orain dela hamaika urte-edo hasten dela Seattlen (AEB), Munduko Merkatari-tza Erakundearen lehenengo goi-bilkura bertan behera ge-ratu behar izan zenean, kalean hainbat lekutatik etorritako aktibisten manifa eta ekintzek delegatuen joan-etorriak eta bilerak erabat oztopatzea lortu zutenean. Hor jaio zen, edo hobe esanda, medioek globalizazioaren kontrako mugimen-dua bataiatu egin zuten. Gero, Porto Alegren urtarrilaren bukaeran urtero Gizarte Foro Globala —*social forum* deitu zuten, Davosko *economic forum*aren kontrapuntu moduan edo— biltzen hasi zenean, aurkakotasun horri nolabait mu-zin egin eta globalizazio alternatibo baten aldeko mugimen-duaz hitz eginen hasi ziren aktibistak. Eta aurtengo mezua

krisia, noraeza, indefinizio estrategikoa da. Medioetan gizarte mugimendu horren porrotaz hasi dira berba egiten. Alta, gure ustez, errealtate horrek badauka beste isla baiko-rragoa bat, ikuspegia zuzen kokatuz gero.

Izan ere, hasieran, edo, Seattle izan zen. Bertan, 1999ko azaroan, World Trade Organisation (WTO) —Munduko Merkataritza Erakundea— sortu behar zuten ordura arte mundu mailako merkataritza arautzen zuen GATT (arantzen eta merkataritzaren inguruko akordioa, ingelesez) izeneko akordio/erakundea izan zenaren errautsetatik. Kapitalismo globalaren kontrol-makinan dabilzanen ideia izan zen, urtetako bilera eta itunen ostean, beste maila batera eramatea arautze hori WTO izeneko erakundea sortuz. Erakunde horren betebeharra —GATT zenaren bera, baina areagotua— mundu mailako merkatal hartu-emanak erraztea zen, estatu bakoitzean dauden muga eta arantzelak deuseztatuz. Funtsean merkataritza *liberalizatze*ko helburuaren atzean mendebaldeko multinazionalen kapital fluxuak errazteko prozesua ezkutatzen zen, eta batez ere kapitalaren dinamika-
ren pean esparru berriak sartzeko ahalegin irmoa zegoen: nekazaritzaren produktuen salerosketen erabateko liberalizazioa, TRIPS izeneko akordioa (jabego intelektuala, produktu kulturalak eta herrien jakintza tradizionala merkatu-gai hutsak bilakatzeko ideia), etab.

GATTen Uruguayko erronda itxi (erakunde horren baruan estatuen arteko negoziazioak, liberalizazioaren baldintzak guztien, edo boteretsuenen, interesen alde jartzeko, urte askotako negoziazio biratan antolatzen ziren, erronda horiek hasten ziren lekuaren izena hartzen zutela) eta WTO-ren Seattleko errondari hasiera ematea, horixe zen AEBetako ipar-mendebaldeko hiri horretan egin zen goi-bilkuraren prozedura, baina ezinezkoa izan zen. Kontrako bilkuran batu ziren, funtsean, iparramerikar sindikatuen langileak (euren industriaren babesa eskatzen zutenak), mundu mailan Via Campesina izeneko erakundearen koordinatzen hasiak ziren nekazari txikiak (horiekin joan ziren bertan egon ziren

bi euskaldunak, Paul Nicholson lekeitiarra eta Mikel Petrirena sunbildarra) eta AEBetako eskualde horietan oso indartsua den mugimendu anarkista. Horiekin batera, azken urteotan globalizazioa izeneko fenomenoak kapitalismoaren hazkunde neoliberal handia zein bihozgabea salatzen ari ziren aktibista eta teorikoak agertu ziren. Denon artean, espero ez zuten arrakasta lortu zuten eta mundua *ikaratu* zuten *mamua* sortu zen, alterglobalismoa.

Arrakastaz hil?

Eta ez zen Seattleko errondarik egon. WTOren lehenengo goi-bilkura urtebete beranduago batu zen Dohan, Pertiako Golkoko arabiar emirerri eta estatu autoritarioa den Qatarren, manifestarien ikaraz eta erabat gotortuta. Sortu zen azkenean erakunde berria eta Dohako errondari ekin zioten, zituzten helburuak betetze aldera. Gaur egun zeharo geldituta dago prozesu hori, egin diren goi-bilkura guztietan (eta beste globalizazio kapitalistaren erakunde eta foro askorenetan) mobilizazio handiak egon dira eta horrek legitimazioa eman die prozesu horrekin mesfidantzak zituzten hainbat estatuari, batez ere Brasil edo Indiaren lidergoarekin, liberalizazioa bilatzen zuten akordioak blokeatzeko edota moteltzeko. Prozesu horren beste alde bat, zalantzarik gabe, hainbat herritan eta bereziki Hegoamerikan egon diren gobernu aldaketak izan dira.

Kapitalismoak inbertsio fluxua ezin du gelditu, beti egon behar du non inbertitu lortutako etekina: hori da bere «burdinazko legea», eta, beraz, esparru berrien sorrera moteltzen den neurrian —hau da, nekazaritza produktuak merkatu globalean jartzea, kultur sormen eta jakintzaren pribatizaziotik espero zena, etab.— betiko guneetara jotzen du; kasu honetan nabarmenki higiezinen espekulazioan babestu dira funts asko eta horrela sortu da gaur egungo finantza-krisia. Horren ondorio larrienak, betiko moduan, jende xeheak ordaintzen ditu, garesti eta bere larruan ordaindu, baina ezin

esan alterglobalizazioaren gizarte mugimenduak bere misio historikoa bete ez duenik. Ez da izan aktibistek espero zutena, baina hori historiaren irakaskuntza da. Esan daiteke gizarte mugimendu oro arrakastaz hiltzen dela, noski bere helbururik behinenak beteta ikusi gabe. Mendebalदारrok daukagun historiaren ikuspegi linealak ez du laguntzen honako prozesuak benetan nolakoak diren ulertzen, baina oso ondo azaldu zuen XIX. mendeko britainiar ilustratu batek. William Morrisen hitz esanguratsuak hala edo hola itzultzen ditugu: gizakiek borroka egiten dute eta galdu; nahiz eta galdu, borrokan nahi zuten hura lortu egiten da, nolabait, baina orduan ere ez da eurek erdietsi gura zutena eta beste gizaki batzuek borrokatu behar dute lehengoek nahi zutena lortzeko, nahiz eta orain beste modu batez deitu.

Jende xeheak asko galdu du munduan zehar izaniko finantzen lurrikararekin, asko galduko du (dugu) hurrengo urteotan, baina jadanik hain subirano ez diren zenbait estatu sinesgarritasuna, merkatuen konfiantza eta —marketinak berebiziko garrantzia duen agertoki honetan— «marka» ona galtzen ari dira maskara asko jausten ari diren inauteri horretan. Eta tamalezko klasifikazio horretan Espainia oso era nabarmenean ari da ezagun egiten, Erresumaren zor publikoa etengabe balioa galtzen ari baita nazioarteko finantza merkatuen aurrean. Azken urteotako «mirari ekonomikoa» batez ere higiezinaren espekulazioan eta (orain) saldu ezinezko etxebizitzaren eraikuntzan oinarritua zegoen, munduko beste inon baina sakonago, eta orain Zapatero presidentek bere politika sozialekiko engaiamendu handidun irudia sakrifikatu behar izan du berriki, estatuak gerrikoa estutzen duela saltzeko: urte batzuk barru jubilatu behar dutenei gerrira estutu die momentuz, eta ikuskizun dago erantzuna ze tamainakoa izango den.

Baina Espainian boterean dagoen aldeari euroan segitzea garesti aterako zaio; Europar Batasunak jadanik exijitu dio azpiegituretan egin nahi zuen gastua biziki murriztu behar duela, bestela aurreikusitako ahal zaion zorpetzeak (nazioarteko

merkatuetan saldu nahi duen zor publikoaren balioa gal-
tzen ari den bitartean) ezinezko egingo zion txanpon bate-
ratuan jarraitzea. Irensteko oso gaitza da errezeta hori, orain-
dik enplegua mantentzeko obra publikoak areagotzea beste-
rik ezagutzen ez duen molde oso zaharreko sozialdemokra-
ziarentzat, baina baita kapitalaren fluxua mantentzeko por-
lana mugitzera ohitu den ekonomia batentzat. Ba al dago
alternatibarik? Ekonomia Jasangarriaren Legean badago oso
artikulu bitxia: orubeen balorazio ofiziala hiru urtetan luza-
tzen da, dagoen moduan, peritaje berririk egin gabe, horre-
la higiezin enpresek eta bankuek jabegoan dauzkaten
orube guztien prezioa euren balantzeetan berdin mantena-
tzeko, aktiboen zutabean, merkaturan egon den debaluazioa
pasiboaren arlora pasatu gabe. «Ekonomia eusgarria baino,
ekonomiak euts diezaion helburua duen artikulua dirudi»,
esan zigun orain gutxi negozio horien inguruan mugitzen
den aditu batek.

Poliki-poliki bizitzen da hobeki

Azpiegituretarako aurrekontuen murrizketa horrek ez
omen dio momentuz kalte egingo euskal «Y grekoaren» egi-
tasmoari, agian gaia gero eta gehiago «estatu kontua» dela-
ko. Baina ikusi beharko da hurrengo urteotan Espainiako
Erresumaren eboluzio ekonomikoa ez ote den are beltzago
jarriko. Momentuz bankuek —euren balantzeetan higiezi-
nen burbuilak egindako kalte agerikoenak Estatuaren di-
ruak estali dituela— abisatu dute higiezin sektoreko en-
presek ere ezin dutela euren zorra ordaindu eta zerbait egin
beharko dela; Ekonomia Jasangarriaren Legeko trikimailu
horrek lasaitasuna ematen die, oso epe motzean soilik, eta
gainera bankuek inork baino hobeto dakite orain balantzee-
tan finantza-ingeniaritza egitea ez dela nahikoa, likidotasu-
na behar dutela. Eta higiezinetan eta eraikuntza obra handi-
tan ibiltzen diren enpresak kasu askotan familia berekoak
dira. Bere gastu aurreikuspenak —eta ez soilik segurtasun

beharrengatik— etengabe gora ezagutzen dituen proiektu batek, aldi berean obra jasaten ari den lurraldean oso aurkaritza sozial zabala daukana eta errentagarritasun soziala —legitimotasuna, azken finean— erakusteko arazo larriak izan dituen, noiz arte eutsi ahal izango dio? Han-hemenka arboletara igota obrak sikiera egun batzuetan atzeratzea lortzen duten aktibistek «AHTa gelditzen ari gara» esan ohi dute. Ba al liteke?

Aurten Porto Alegren interes handiz segitu dituzte David Harvey geografo britainiarraren argudioak. Molde klasikoko marxista da bera; askotan esaten du Marxen analisiak askoz esanguratsu eta ulergarriagoak direla orain, marxismoa modan egon zen garaian baino. Harveyk, dena den, asko egin du marxismoaren zenbait kategoria gaur egungo panorama berriro txertatzeko. Maisuki azaltzen du nola kapitalaren fluxuen etengabeko zirkulazioaren behar horrek gure bizimodua azeleratu egin duen, denbora eta espazioaren konpresioa eraginez. Gero eta azkarrago, abiadura handian istripuak gertatzea errazago da, eta ondorioak larriagoak. Poliki-poliki bizitzen da hobeki, diote zuhaitzetan goratzen diren horiek. ¶